anboto
2009ko uztailaren 3a
8. urtea - 337 zk.
durangaldeko astekaria
www.anboto.org

**Herririk Herri** |4|
Berrio-Otxoa Eguna ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu dabe Elorrion

**Ekonomia** |10|
Enpresa-proiektuen I. Lehiaketa egingo dau Iurretako Udalak

**Amalurra** |22|
Urkiolako Lagunak taldeak parke naturalagaz hartu-emon estua dauka



# TAO txartel barria gremio eta osasun langileendako

> TAO guneetan hainbat aldaketa egitea erabaki dau Durangoko Udalak. Gremioek eta etxez etxeko osasun langileek txartel barria izango dabe

> Orain arte egoiliarrentzat mugatutako gune laranja batzuk urdinak izango dira laster, eta lehendik zegoen hainbat gune urdin zabaldu egingo ditue

2



Herriko gremioetako beharginek ez dabe TAOrik ordaindu beharko. Kepa Aginako

## Onddoak hazteko sistema barritzailea aurkeztu dabe

**Atxondo•** Fernando Canales sukaldariak aurkeztu dau onddoak hazteko mikorrizazio sistema. Basogintza suspertzeko aukera izan leikela eritzita, ekimen horrek Aldundiaren babesa jaso dau.

3

## Aritza Rodriguezen heriotzari buruzko gogoeta: 'Mortimer'

**KULTURA•** 'Mortimer' izena dauka Aritza Rodriguez aktore zaldibartarrak azken urtebetean osatzen jardun dauen antzezlanak. Besteak beste, Kukubiltxo antzerki taldean be badabilen gazte zaldibartarraren heriotzari buruzko erreflexinoak oinarri dituen bakarrizketa da 'Mortimer'. Durangoko *Uda Kalean Bizi* ekimenaren barruan eskaini eban atzo, eta hainbat emanaldi egingo dau udan zehar eskualdean.

13




• **Abadiño**
Euskara eta berdintasun planak aho batez onartu ditue 6

• **Otxandio**
Urbiribil ingurua aisialdi gune izateko egokituko dabe 7




ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK
Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyelexpe.biz

# HERRIRIK HERRI

DURANGO

## TAO txartel berezia, gremio zein osasun zerbitzuendako

Egoiliarrentzat mugatutako gune laranja batzuk urdinduko ditue, eta hainbat gune urdin zabaldu

Trafikoaren eta aparkamenduaren ordenamenduak (TAO) zenbait eraldaketa "garrantzitsu" jasoko ditu. Horretara, gremioentzat —urian jardunez gero— eta etxez etxeko laguntzan dihardueen osasun-langileendako txartel berezia sortuko dabe, TAO gunean aparkatzeko erreztasunak emonez. Minusbaliatu txarteldunek be izango dabe autoa bertan iztea. EB-Berdeek, PPk, PSE-EEk eta EAJk alde egin dabe. Talde

**Zumalakarregi eta San Agustinalde txandakatze handiko gune izateko Aralarren botoa ez da onartu**

Mistoak "gabezia eta akatsak konpondu" arren, kontra egin dau eredu horri egoki ez eritzita.

Aralar abstenitu egin da, eta ez da onartu Zumalakarregi eta San Agustinalde txandakatze handiko gune izendatzea —tramite edo erosketetara bideratzeko, aparkamendua ordu bira mugatuz— eskatzen eban boto partikularra. Ia gertu dagoen mogikortasun plana arrazoitu dabe PPk eta EAJk. Ezetz esan dau Talde Mistoak be, eta EB-Berdeak eta PSE-EE abstenitu egin dira; neurriaren kontra egon ez arren, "alternatiba falta" dela dinoe sozialistek.

**Laranjak urdindu**

Epe labur-ertainean "neurri sakonagoak" bideratzeko tresnatzat dauka Udalak Mogikortasun Plana. Baina, bitartean, "koherentzia emoteko" eraldaketa onartu dabe: Txatxiena, San Ignazio, Zabale eta Askatasun Etorbidean zabalduko da gune urdina, eta egoiliarrei mugatutako gune laranja batzuk urdindu: Juan Mari Altuna, Dario Regoyos, Saibigain eta Laubideta eta Montebideo kaleetan zati bana.

EB-Berdeen ustez, "hobekuntzak" ekarriko ditu disuasino-aparkalekuak egin arte "nahikoa" deritzoen handitzeak. Aralarrek, barriz, horrek aurretik eta "erizpide ekonomizistei jarraituz", hasieran onartu zen handitze haregaz zerikusirik ez daukala nabarmendu dau. Dena dela, bestelako neurrien "premina" gogoratu dau.



Ohikoa izaten da hainbat gune laranja hutsik ikustea. A.B.

**Neurri "oso onuragarrion" atzean eztabaida "sakona eta zabala" egon dela nabarmendu dau EAJk**

PPk dino TAOa jarri zenetik "hainbat gabezia" agertu dela, eta PSE-EEk "gitxieneko akordioa" aurretik ez lotzea "ulertezintzat" jo dau. Neurri "oso onuragarrion" atzean egon den "eztabaida sakon eta zabala" aitatu dau EAJk. ■ A. B.

### Gizon eta Emakumeen I. Berdintasun Plana onartu barri dabe

Gizon eta Emakumeen Udaleko I. Berdintasun Plana onartu dau udalbatzarrak, aho batez. 2009-2011 bitarteko plangintzan osatzeko gizarte eragile eta herritarren parte-hartzea eskertu dabe.

EB-Berdeek "beharrezkotzat" jo dabe "anbiziosoa" den plangintza, eta ekintzak eta epeak betetzeko egin beharreko lana nabarmendu dau. Aralarrek be "berba hutsetan" ez geratzea itxaroten dau, aurrekontua faltadauela gogoratuz. Zeharkakotasuna nabarmendu dabe Aralarrek, Talde Mistoak eta PSE-EEk; sozialistek jarraipen bat egitearen garrantzia be bai, eta Talde Mistoak plana "borobilduz" Andereak-ek, Bilgune Feministak eta Emakumeen Sustapen Zentroak egindako lana.

**Gizarte eragile eta herritarren parte-hartzea eskertu dabe udal taldeek**

**Zeharkakotasuna nabarmendu dabe Aralarrek, Talde Mistoak eta PSE-EEk**

PPk "helburuak lortzeko tresna baliogarria" izatea itxaroten dauen plangintza "oso landu" eta "garrantzitsutzat" jo dau EAJk. Jarraipena egin eta helburuak bete gura ditueela eta jagokon dirua lotuko dela dinoe. ■ A. B.

## Hamar informazino puntu elkarreragile jarri ditue urian

Merkatari elkarteekin eta Merkagune egitasmoarekin garatu dabe ekimena


Udaletxearen alboan ipini dabe informazino puntu bat. A.B.

Hamar informazino puntu elkarreragile jarri ditu Udalak urian banatuta. Gehitzen joango den oinarrizko informazinoaz hornitutako panel horreek merkatari elkarteekin elkarlanean jarri ditue, eta asteburuan ipiniko ditue martxan. Merkagune egitasmoak lagundutakoa da 307.000 bat euro eskatu dituen ekimena.

Euskara eta gazteleraz, udal zerbitzuei, garraio publikoari eta ostalaritza eta komertzioari buruz informazinoa eskuratu leiteke, ukimenez dabilen zatiaren bitartez; baita informazino turistikoa be (ingeles eta frantsesez be bai). Bluethoot-ez mogikorrera informazinoa deskargatzeko aukera be emon gura dabe. ■ A. B

## Multimedia gela barria zabaldu dabe Liburutegian

Liburutegi Interkulturala egitasmoaren baitan
Munduko Egunkariak zerbitzua be abiatu dabe

Multimedia gela barria jarri dau martxan Udal Liburutegiak, bigarren solairuan. Erabiltzaileek euren eginkizunetarako baliatu daiezen 18 ordenagailu jarri ditue, zerbitzu hori egunean 220 lagunek erabiltzeko aukera eskainiz. Liburutegi zaharrean baino

**Udal Liburutegiko bigarren pisuan 18 ordenagailu jarri ditue erabiltzaileen eskura**

**Munduko Egunkariak zerbitzuan 80 herrialdetako egunkariak dagoz**

bost bider gehiago, udal arduradunek adierazo dabenez.

Egunero erabili behar izanez gero, urte osoan ordu betez erabiltzeko aukera egongo da. Identifikazino sistema izango dau, eta erabiltzaileak alta eskatu beharko dau. Interneten nabigatu edo beste premina ofimatikoetarako erabili ahal izango da.

Bestalde, Udaleko Inmigrazino Sailak, Udal Liburutegiagaz batera, bertako zerbitzuak etorkinen eskura jartzeko hainbat ekimen jarri dau martxan, Liburutegi Interkulturala egitasmoaren baitan. Holan, Munduko Egunkariak kontsulta zerbitzua jarri dabe martxan, 80 herrialdetako egunkariak batuz.

# Harley Davidson motoen erakustoki bihurtuko dabe Landako Gunea

'Euskal Harley-Custom' jaiak horreetariko 200 mototik gora batuko ditu, uztailaren 3tik 5era

'Euskal-Harley-Custom' jaia ospatuko dabe, uztailaren 3tik 5a bitartean, Landako erakustazokan. Horreetariko 200 mototik gora batuko dira, eta nobedade moduan bide heziketa zirkuitua be egokituko dabe; gaztetxo ezinduek moto elektrikoan jardun ahal izango dabe. Geu Be eta Stop Accidentes elkarteak gonbidatu ditue. Aeromodelismo erakustaldia be izango dabe domekan.

Udalaren laguntzagaz, Durango eta Iurretako +Dendak merkatari elkarteak bultzatutako jaiaren baitan, besteak beste, kontzertuak (Reverendo Parker, The West, Brokers Brothers Brass…), biker-jokoak, moto-irteerak, afaria, bandera desfilea eta suziriena —hildako motozaleak omenduz— antolatu dira. Horrez gainera, txosnak, Harley produktuen salmenta guneak eta tatuaia egileek jarritakoak egongo dira; 15 bat erakustoki guztira.

**300era heldu guran**

Inaugurazino ekitaldia gaur 20:30ean egingo dabe. Izena emon dabe 200 bat motorzalek, baina antolatzaileek 300 bat batzea itxaroten dabe, "askok eta askok azken unera arte itxaroten dabe-eta". Galizia, Katalunia, Leon eta Madrildik bertaratuko dira, besteak beste, Euskal Herriko hainbat lekutatik ez eze. HDC Euskal Herriak-en babesa izan dabe.

Lehenengo edizinoa da hau, baina ekitaldi iraunkorra izatea gura dabe antolatzaileek. Frai Juan Zumarraga institutuko frontoian lo-lekua egokitu dabe, baina *Irteera txikiak* produktu turistikoaren eskutik ostatu be hartu leiteke, arrazoizko prezioan. ■ A.B.

**Lehenengo edizinoa da aurtengoa, baina ekitaldia iraunkor bihurtu gura dabe antolatzaileek**

**Kontzertuak, biker-jokoak, afaria, moto-irteerak, erakusketak, bide-heziketa zirkuitua… antolatu ditue**

# Plastikozko 600.000 poltsa desagertarazotea helburu

Agenda 21en bitartez, 600.000 plastikozko poltsa desagertarazoko ditue aurten. Okindegietan banatuko ditueen paper-poltsekin lortu gura dabe hori. Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planaren (2007-2010) baitan jaso dabe ekimena, udal arduradunek azaldu dabenez.

Ehuneko ehunean ekologikoak diren birziklatzeko paper-poltsetan emongo dabe ogia uriko okindegietan; poliamida bako tinta eta kola erabiliz.

Sei hile iraungo dau kanpainak, gero neurri iraunkor bilakatuz. Poltsa horreetan, Udalaren ingurumen informazinoa, Turismo Bulegoarena eta kanpainan parte hartu daben tokiko enpresena zabalduko dabe. 2011n debekatuta egongo dira, legez, plastikozko poltsak. ■ A. B.

**ATXONDO**

# Onddoak hazteko sistema barritzailea aurkeztu dabe

Fernando Canales sukaldariak zuzentzen dauen Axpeko Akebaso jatetxean aurkeztu dabe onddo eta perretxikoak hazteko "mikorrizazino" sistema



Pardo nekazaritza diputatua eta Canales sukaldaria, proiektuaren sortzaileagaz. I.E.

Galiziako Ourensen sortutako onddoak hazteko proiektua da Fernando Canales sukaldariak eta Irene Pardo Bizkaiko nekazaritza diputatuak aurkeztu eta bultzatu dabena. Zurak merkatuan daukan prezio galerari erantzun eta basoa zaintzeko aukera moduan aurkeztu dabe Axpeko Akebaso jatetxearen atzealdeko basoan.

**Arbolen sustraietan zein mozketetan sortutako zur hondakinetan sartu leitekez onddoa hazteko haziak**

Nekazaritza ekologikoaren esparruan baso-jardun barri lez aurkeztu dabe, Bizkaian lehenengoz, Atxondon eguazten honetan probatu dabena. Sistema barriaren oinarria, perretxikoak eta onddoak arbolei sustraietan sartutako hazien bitartez, "mikorrizatzea" deitzen dabena: onddoaren gorputz begetatiboa osatzen dauen mizelioa baliatzen dabe horretarako. Bizirik dagozen arbolen sustraietan ez eze, mozketen zur hondakinak berrerabilita be sortu leitekez sistema honegaz Fernando Canales lako sukaldariek hain estimu handian daukiezen onddo eta perretxikoak. ■ I.E.

**Basogintza suspertzeko aukera lez aurkeztu dabe onddo eta perretxikoak arboletan hazteko sistema barria**

# Atxondoko inguru ederrak ezagutzeko mendi martxa

Azken urteetako ohiturari eutsiz eta Apatako jaiekin bat eginda, mendi martxa antolatu dabe uztailaren 5erako. Herria inguratzen daben inguru paregabeak hobeto ezagutzea da helburua.

Apata, Axpe eta Arrazola auzuneak eta antzinako karobiak topatuko ditue bidean, besteak beste, uztailaren 5ean mendirako aukera egiten dabenek. Ibilbide bereizi bi prestatu ditue; Apatako plazatik 08:00etan irten eta Axpe, Olarreta, Azubiko pagadia, Albistei gaina, etab. zeharkatuko dituena, eta txikienentzako aproposagoa den bigarren ibilbide bat: 10:00etan Apatatik irten eta 11:30ean Topen hamaiketakoa izango dauena. ■ I.E.

**Nagusi eta txikiendako ibilbide bereizi bi antolatu ditue uztailaren 5erako**



ELORRIO

# Berrio-Otxoa Eguna ospatuko dabe asteburuko ekitaldi sortagaz

## Musikairek bat egingo dau jaiagaz, Gasteiz Big Band eta Txuma Murugarrenen kontzertuekin



Asteburu osoko ekitaldiekin ospatuko dabe Balendin Berrio-Otxoa Eguna.

Elorrioko patroi den San Balendin Berrio-Otxoa gogoratuko dabe asteburuan elorriarrek, urteroko tradizinori jarraituz. Abesbatzen kontzertuak, haurrendako ekitaldiak eta pilota partiduak antolatu ditue, beste hainbaten artean.

Gaur, 17:00etan, burbuila jaia egingo dabe plazan. 18:00etan, Elorrioko Berriotxoa pilota taldeak antolatutako partiduak hasiko dira. Azkenik, Gasteiz Big Banden kontzertua egongo da plazan.

Bihar, uztailaren 4an, da Balentin Berrio-Otxoa Eguna. Eguerdiko 12:00etan meza dago Sortzez Garbiaren Basilikan. Segidan, 13:30ean, luntxa eta kale animazinoa egongo dira plazan. Toki berean, baina arratsaldeko 18:00etan, Bidasoako erraldoiak

**Bihar 18:00etatik aurrera Bidasoako erraldoiak eta buruhandiak ibiliko dira Udaletxe pareko plazan**

eta buruhandiak izango dira protagonista, eta baita eurengandik ihesi ibiliko diren gaztetxoak be. 18:30eko pilota partiduen ondoren, 20:00etan, Berrio-Otxoa abesbatzak kontzertua eskainiko dau

**Bihartik hilaren 12ra, Klaudio Gallastegiren gaineko filatelika erakusketa dago ikusgai Iturrin**

Santa Anako Kaperan. 22:30ean Txuma Murugarren zuzenean ariko da, Lourdesko Ama Ikastetxean. Etzirako, Elorrioko ermiten ibilbidea antolatu dau Erdella mendizale taldeak.

Azkenik, bihartik hilaren 12ra, Klaudio Gallastegi eta erlijio gaiak oinarri dituen erakusketa filatelikoa ikusgai egongo da Iturrin, Elorrioko Numismatika eta Filatelika Elkarteak eratuta. ■ J.D.

# Nekazaritza Ekologikoaren Azoka egingo dabe etzi

## 25 stand inguru batuko dira Udaletxearen ondoko frontoi librean, 09:00etatik 14:00etara

Etzi XIII. aldia beteko dau Elorrixa ekologia taldeak eta Marisatsak elkarlanean antolatzen daben Nekazaritza Ekologikoaren Azokak. Gernikako Arbola plazaren ondoko frontoian 25 saltoki inguru ipiniko ditue, goizetik eguerdira (09:00etatik 14:00etara).

Urtero legez, produktu eskaintza zabala ikusteko eta erosteko aukera eskainiko dabe: ogia, gazta, pastelak, sendabelarrak, barazkiak… Euskal Herri osotik etortzen dira saltzaileak; gehienbat Bizkaitik eta Gizpukoatik, baina baita Arabatik eta Nafarroatik be.

Azokak helburu bikotxa dauka. Batetik, produktu ekologikoak bultzatu gura ditue eta, bestetik, saltzaileen eta erosleen arteko hartu-emona bultzatu gura dabe. Aurten, gainera, produktu transgenikoen inguruan informatzen dauen 500 liburuxka banatuko ditue bertaratzen direnen artean. Transgenikoak zer diren azalduko dabe liburuxkan, besteak beste. ■ J.D.

**Euskal Herri osotik etorritako saltokiak ipiniko ditue plaza ondoko frontoian**

**Produktu transgenikoak zer diren azaltzen dauen liburuxka bat banatuko dabe bertaratzen direnen artean**

BERRIZ

# Merkatari Eguna antolatu dabe biharko, lehenengoz

## Eguerdian, 13:00etatik 14:00etara, pintxoak dastatuko ditue herriko bederatzi tabernatan

Berrizko Merkatari Elkarteak I. Merkatari Eguna antolatu dau biharko. Herrian jai-giroa sortzea eta, oro har, herriko merkataritza sustatzea dabe helburu.

11:00etatik 18:00etara Merkealdi Azoka antolatuko dabe Olakueta plazan, 11 saltokigaz. Azkondo taldearen musikak girotuko dau azoka. Era berean, 13:00etatik 14:00etara pintxo dastaketa egingo dabe herriko bederatzi tabernatan, eta janari dastaketa sei janari-dendatan.

Bestelako aukerak be egongo dira. Bihar Keñu Zentro Optikoak deskontu berezia egingo dau eguzkitako betaurrekoetan.

Uztailaren 6an Estetika Itziarren, hanka osoko depilazinoagaz manikura doakoa izango da. Puerto ileapaindegian ile-tratamendu bat aukeran ipiniko dabe martitzenean; eguaztenean, Dori ileapaindegiak tinteagaz ile mozketa bat oparituko dau. Azkenik, Maribel ileapaindegiak ile-tratamendua doan eskainiko dau uztailaren 8an. ■ J.D.

**Bihar Olakueta plazan 11 stand ipiniko ditue Merkealdi Azokan**

GARAI

# Txirlo astoa garaile Sanjoan jaiei agurra emoteko egunean

Domekan amaitu ziren Sanjoan jaiak Garain, Momoitio auzoan. Egunez giro ederra izan eben, dantzari, igel txapelketa eta enparauekin. Arratsaldean, barriz, jente asko batu zen asto-probak ikusteko.

Iurretako Txirlo eta Suetzako astoak lehiatu ziren, buruz buru. Aurreko batean, Suetzakoak erraz garaitu eban Iurretakoa, eta jakinmina zegoen Txirlok egingo eban lana zela-eta. Oraingoan, bada, Txirlo nagusitu zen 50 untze beteta; Suetzakoak 40 egin zituen.

Zapatuan ipuin kontalaria, afaria eta erromeria izan zituen garaitarrek, Momoitioko baseliza inguruan. ■ M. O.

GALDERA:
Durangaldeko zein herritan ospatuko dabe Berrio-Otxoa eguna asteburuan?

Izena:
Tel.:

Makatzeta jatetxerako lagun birendako afari-txartela zotz egingo dogu.

Bialdu erantzunak: Santa Ana, 6 Durango edo astekaria@anboto.org helbideetara. Hilaren azken alean agertuko da irabazlea.



Irabazlea: Aitor Duñabeitia

Makatzeta
ARRAZOLA
Arrazola- Atxondo
Tel.: 94 658 29 31


BERRIO-OTXOA
2009
UZTAILAK 4-12
Iturri Kultur Etxean
Klaudio Gallastegi eta erlijio gaiak erakusketa filatelikoa.
Exposición filatélica Claudio Gallastegi y temática religiosa.
Sociedad numismática y filatélica de Elorrio
UZTAILAK 3
17:00 Plazan
Burbuila jaia. Fiesta de las pompas
18:00 Plazako frontoian
Pilota partidak. Partidos de pelota.
Elorrioko Berriotxoa pilotazale taldea
22:30 Plazan
MUSIKAIRE: GASTEIZ BIG BAND
UZTAILAK 4
12:00 Sortzez Garbiaren Basilikan
Meza nagusia. Misa Mayor.
Coro Parroquial Sorkunde Guztiz Garbia
13:30 Plazan
Luntxa eta kale animazioa. Lunch y animacion callejera
18:00 Plazan
Bidasoako erraldoiak eta buruhandiak. Gigantes y cabezudos.
18:30 Plazako frontoian
Pilota partidak. Partidos de pelota.
Elorrioko Berrio-Otxoa pilotazale taldea
20:00 Sta. Ana kaperan
Abesbatz Kontzertua. Concierto Coral.
Berrio-Otxoa Abesbatza
22:30 Lourdesko Ama ikastetxean
MUSIKAIRE: TXUMA MURUGARREN
UZTAILAK 5
07:30 Irteera plazatik
Elorrixoko ermiten ibilbidea. Recorrido por las ermitas de Elorrio.
Erdella Mendizale Taldea
Elorrioko udala

**ABADIÑO**

# Euskara eta berdintasunaren inguruko planak onartu ditue

Jagoken Batzordean adostu ondoren, aho batez onartu ditue plan biak

Udaleko hiru alderdi politikoetako zinegotzi guztiek aho batez onartu zitueen datozen urteetan gizon eta emakumeen berdintasunerako lana eta euskararen erabilera sustatzeko moduak gidatuko ditueen Udalaren oinarrizko planak.

Gai bakotxa jagokon Udaleko batzordean eztabaidatu eta adostu ondoren aurkeztu zitueen udalbatzarrean onartuak izan zeitezen. Aurreikusi eben moduan, aho batez onartu zitueen biak Udalean ordezkaritza daukien independiente, jeltzale eta ezker abertzaleko zinegotziek.

**Udal jarduerako euskararen erabilerari buruzko diagnosia da Euskararen Erabilera Planaren oinarrietako bat**

**Datozen lau urteetan Udalaren berdintasunaren aldeko lana gidatuko dauen II. Berdintasun Plana onartua**

Euskararen Erabilera Planari jagokonez, Udaletxean egiten den hizkuntzaren erabileraren diagnosia egin dabe, eta emaitza horreetan oinarrituta urte bakotxerako lortu beharreko helburuak eta jarraibideak Euskararen Erabilera Planak emongo ditu.

Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde egiteko Udalak egingo dauen bultzatzaile lana gidatuko dauen II. Berdintasun Plana be onartu eben plenoan. Datozen urteetarako jarraibideak zehazten ditu planak, eta Berdintasun Sailaren lanaren nondik norakoa zehaztu. ■ I.E.

**ZALDIBAR**

# Postal Lehiaketa antolatu dabe Udal Liburutegian

Udan zehar osatutako postalak aurkezteko epea irailaren 18a artekoa izango da

Euskara Sailak eta Liburutegiak antolatuta, Postal Lehiaketa izango da uda honetan be. Udako oporretan edonora zoazela, bertako irudi bat eta zeure deskribapen eta inpresinoak jasotzen dituen postala osatzea da kontua.

Igaz legez, sariak banatzerakoan epaimahaiak aintzat hartuko dituenak postala polita edo originala izatea eta oporretan egondako lekuaren deskribapenaren edertasuna izango dira.

Opor sasoian ezagututako lekuaren zein jendearen deskribapenak eta bestelako inpresino pertsonalak jaso ahalko dira postalaren atzealdean.

Baldintza bakarra testua euskaraz idatzitakoa izatea da. Irailaren 18a artekoa da lehiaketan parte hartu ahal izateko epea, Diputazio plazako 1. zenbakira bidali beharko dira, Liburutegira.

**Postalaren irudia eta testua, biak izango ditue saria banatzerakoan kontuan**

**Baldintza nagusia postala euskaraz idatzita egotea izango da aurten be**

## Erromeria egun bero eta jentetsua ospatu eben Astolako landetan

Jairako gogotsu eta egun osorako egitarauagaz gozatzeko prest zegozen lagun asko batu zen joan zen zapatuan Abadiñoko Astolako landetan. Dantzarako grina be nabari jaken De Norte a Sur elkarteak antolatutako Erromeria Egunera gerturatu zirenei. Eguerdian pregoia irakurri ebenetik gauera arte jai giroa izan zen nagusi Astolako landetan: dantza, kantua, jana eta edana be izan ziren Erromeria Eguna girotzen lagundu ebenak.



K.Aginako

**MALLABIA**

## Learreta-Markina herri eskolako logo barria aukeratu dabe

Learreta–Markina herri eskolak logo barria dauka. Mallabiko eskolako ikasle eta ikasle ohien artean egindako lehiaketan aukeratu dabe ikastetxearen irudi barria. Julene Larrakoetxeak egindako lana eskolarentzako irudi egokiena dela eritzi deutso epaimahaiak. Lehiaketan 33 lan aurkeztu diraguztira, eta epaimahaia Oihane Onaindia kultura zinegotziak, irakasle bik eta guraso bik osatu dabe.

**Julene Larrakoetxeak irabazi dau Learreta Markina herri eskolako logo lehiaketako sari nagusia**

Irabazleak 250 euroko saria jaso dau. Lehiaketan parte hartu daben lanak liburutegian ikusteko aukera dago, uztailaren 8a bitartean. Logo lehiaketa Mallabiko Udalak Learreta-Markina ikastetxeagaz batera martxan jarritako ekimena izan da. ■ P.M.

## Giro bikainean ospatu zitueen jaiak Goita auzoan, joan zen asteburuan

Eguraldia lagun izan eben joan zen astean Goita auzoko jaietan. Domekan goitarrek eta zengoitarrek desafioa izan eben belar-mozten. Bolina eta German goitarrek Zorion eta Aldape zengoitarrak izan zitueen aurkari. Goitarrak izan ziren jaietako desafioko garaileak. Germanek jeneroz betetako karretilaren zozketa be irabazi eban. Bigarren saria, ardao kutxa, 1.906 zenbakiarentzat izan zen eta oraindik irabazleak ez dau saria jaso.



K. Aginako






OTXANDIO

# Urbiribil ingurua aisialdi gune izan daiten egokitzen

## 226.000 euroko aurrekontuagaz, lanak irailean hasi eta hiru hileren buruan amaitu gura ditue



Zubia pasatu eta ezkerratara dagoen ingurua da Urbiribil.

Uribarrena kalearen amaieran, zubia pasatu eta ezkerretara errekaren ertzean dagoen ingurua, Urbiribil moduan ezagutzen dena, aisialdirako gune izan daiten egokituko dabe. 266.000 euro ditue asmoa burutzeko. Lanak irailean hasi eta hiru hileren buruan amaitu gura ditue.

Urbiribilen parke bat zegoen lehenago. Oraindino hantxe dagoz jarlekuak, baina erabat zahartuta eta belarrak janda. Zonalde hori errekuperatu egin gura dau Udalak. Lehengo bidetik landara sarrerak egingo ditue, irisgarritasun neurriak errespetatuz. Hantxe bertan alde batetik besterako jesarleku luze bat ipiniko dabe. Tarteka kale argiak be jarriko ditue.

**Erreka ondoa berreskuratu**

Ondoren, zonaldea garbitu eta platanondoak eta bestelako zuhaitzak landatuko ditue, ingurua edertu eta itzala emon daien. Era berean, erreka ingurua berreskuratuko dabe. Ingurugiroa errespetatuz, bazterrak garbituko ditue eta eusteko horma eraiki. ■ J.D.

IURRETA

# Datorren hilaren 14an inauguratuko dabe Goiuria kulturgunea

Goiuria kulturgunerako erabilera araudiaren hasierako onespena eztabaidatu dau asteon udalbatzarrak, eta uztailaren 14an inauguratuko dabe. Uda bueltan aurreikusi dabe erabiltzen hastea. Kulturgunea 08:00etatik 22:00etara izango da zabalik, araudiak batzen dauenez, eta elkarte bakotxak bere giltza eta ordutegia izango dau. Udalak be izango dau erabiltzeko aukera.

**Kultur azpiegiturarako araudiaren hasierako onespena eztabaidatu dabe**

**Jarraipen Batzordeak izango dau lekua dinamizatu eta arazoak konpontzeko ardura**

Elkarteendako lanerako eta elkartzeko lekua izango da hori, eta aukera izan gura daben elkarteek zabalik daukie izena emoteko aukera. Hasieran onartutako araudiak Jarraipen Batzorde baten sorrera be jasotzen dau. Talde bakotxeko ordezkari batek eta Udaleko kultura batzordeko ordezkari bik osatuko dabe, eta horren ardura izango da "azpiegitura dinamizatzea eta sortu leitekezen arazoak konpontzea", Iñaki Totorikaguena alkatearen berbetan. ■ A.B.

DURANGO

# Ez dabe onartu euskal presoen eskubideen aldeko mozinoa

Euskal presoen oinarrizko eskubideak "urratzen" dituen "sakabanaketa politika" amaitzea eskatuz aurkeztutako mozinoak ez dau aurrera egin. EB-Berdeek salatu dabe "batzuetaz" bakarrik berba egiten dela, eta EAJk "guztien eskubideen aldeko aldarria" berretsi dau: "Oraintsu ETAk eskubide guztien oinarrian den bizitzeko eskubidea apurtu dau. Errealitatearen zati bat kanpoan iztea onartezina da". PSE-EEk uko egin deutso mozinoa eztabaidatzeari, eta PPk esan dau Talde Mistoak aurkeztutako mozinori buruz ez dauela jardungo.

Talde Mistoak gogoratu dau "gatazka" bat dagoela, eta "berba egin ezean" ez dagoela "ezer egiterik". Aralarrek "norabide bakarreko" mozinoei ez deutsela baiezkorik emongo dino: "Hainbat ondorio dituen gatazka politikoa daukagu: hau da bat".

# Udako Dantzaldiak hasi ditue



Kepa Aginako

Antzinako dantzaldiak gogora ekarriz, Udalak antolatutako Udako Dantzaldiak hasi zitueen joan zen asteburuan. Orkestrek girotutako dantzaldiok datorren uztailaren 19a bitartean eskainiko ditue, domekaro. Ezkurdi Plaza daukie agertoki, 19:00etatik 21:00ak bitartean. Uztailaren 5ean jarri dabe hurrengo hitzordua, eta Trio Moby-Dick orkestrak hartuko dau dantzaldia girotzeko ardura. Uztailaren 12an eta 19an, Trio Top 90 eta Orquesta Rex taldeek jardungo dabe. Euria eginez gero, Merkatu Plazan izango dira dantzaldiak, jakin eragin dabenez.

# Gay eta lesbianekin bat



Gay, Lesbiana, Bisexual eta Transexualen Nazinoarteko Egunagaz bat egin dau Durangoko Udalak. Kolektibo horreen ikurra jarri eben Udaletxeko balkoian joan zen ekainaren 28an. "Espazio publikoak askatasun eta errespeturako gune" izan daitezen aldarrikatuz irten eban kalera hainbat herritarrek Euskal Herriko hiriburuetan, hainbat elkartek egindako deiari jarraituz.

IZURTZA

# Dantzari Egunerako prest egoteko entseguak egiten

## Astean birritan elkartzen dira lehenago dantza taldean ibilitako hainbat adinetako izurtzarrak

Irailean herrian izango den Dantzari Egunerako prestaketen parte dira astean birritan herriko hainbat lagun dantza entseguetara biltzen ditueenak.

Durangaldeko gainerako herrietako dantza taldeekin batera, euren dantzak erakutsiko ditue, irailaren bigarren zapatuan, Mendigain dantza taldean ibilitako dantzariek, Dantzari Egunean.

**Irailean herrian izango den Dantzari Egunean emanaldia eskaintzeko prestatzen dabilz Mendigain taldean ibilitakoak**

Azken urteetan galduta izan diren dantza taldeak berreskuratzeko atxakia izango da Dantzari Eguna; izan be, azken urteetan herriko jaietan dantza egiteko elkartzen ziren gazteez gainerako taldeak bananduta zegozen.

Dantza taldearen dinamika galdu egin dela azken urteotan azaldu deuskue, baina agerikoa da egoera horri buelta emoteko bidean egon leitekezela.

Irailleko emanaldietan, berreskuratutako bi edo hiru talderen dantzaldia izango da, Dantzari Egunaren harira antolatutako beste ekitaldien osagarri. ■ I.E.

MAÑARIA

# Umeendako udako kanpamenduak, astelehenetik aurrera martxan

Uztailaren 6an, datorren astelehenean, hasi eta 17a arte burutuko ditue herriko umeendako antolatu ditueen udako kanpamenduak. Hamaika egunetarako egitaraua izango dabe umeek aukeran, beraz, opor garaia abiatzen daben honetan.

Astelehenetik barikura, 10:30etik 12:30era bitartean izango da kanpamendu irekia, eta herriko 4 eta 10 urte bitarteko umeak dira izena emoteko aukera izan dabenak.

Gurasoak lanean dagozen goizeko tarte horretan, tailerrak, jolasak eta beste hainbat ekimen burutuko ditue, 12 euroren truke, izena emon dabenek.

ABADIÑO

# Gaztelua auzoan jai giroa izango dabe asteburuan

Jai giroa izango dabe nagusi, asteburuan, Gaztelua auzoan. Zapatua, San Martin Eguna, egun handia da auzoan, eta hori gogoan hartuz ekitaldi sorta antolatu dau Udaleko Kultura Sailak. Gaur, 20:00etan, ipiniko dabe donien-atxa, jaiei ondoetorria emonez. Gainerako ekitaldiak, uztailaren 4rako antolatu ditue. Meza izango da 11:30ean, San Martin ermitan, eta amaitzean Abadiñoko dantzariek eskainiko dabe saioa. Jan-edana prestatu dabe 12:45ean. Arratsaldera begira, umeendako eskulanak hasiko dira, 18:00etan, eta 19:00etan tortilla txapelketa.







# apatako jaiak






















Argazkiak: Kepa Aginako

# berrizko jaiak

HERRIRIK HERRI ATALAREN BABESLE
BFA
DFB
Bizkaiko Foru Aldundia

BERBAZ >

# "Durango herri solidarioa da, Bizkaia mailan donazino gehien egiten dituena"

Mugarra odol-emaile elkarteak 40. urtemuga gogora ekarri dau Landako Gunean antolatutako ekitaldian

**Alpino tabernan ekin eutsan lanari Mugarra odol-emaile elkarteak, orain lau hamarkada. Ekainaren 15 batean elkartu ziren Goienkaleko tabernaren atzeko lokalean lehenengo donazinoak egiteko. Harrezkero, jentearen parte-hartzeak nabarmen gora egin dauela azaldu deuskue elkarteko kideek. José Martín Santibáñez 1975ean hasi zen odolemoile elkartean lanean.**

*Zelan sortu zen elkartea?*
Gabriel González, Antón García eta Xabier Alberdi Alpino mendizale taldeko kideak izan ziren ekimenaren bultzatzaileak. Manolo Zubiak Eibarren zegoen odol-bankuagaz hartuemonean jarri zituen. Elorrion be aurretik funtzionatzen zenbilzen.

*Alpino tabernan batzen zinien.*
Taberna barruko aldean Alpino elkarteko ekintzetarako lokala zeukien, eta hantxe batzen ginen hilean bariku baten. Gortinak eta jesarlekuak jartzen genduzen donazinoak egiteko. Inguruko lonja baten lekua izten euskuezen jesarlekuak, hurrengo hilera arte gordetzeko. Goienkale jentez beteta egoten zen, eta gu jarlekuekin aurrera eta atzera ibiltzen ginen.

*Egoitza hainbat bider aldatu dozue.*
Tabernatik lehen Gurutze Gorria zegoen lekura joan ginen. Espazio handia geunkan. Barikutik eguenera aldatu euskuen eguna. Eguen baten 202 lagunek emon eben odola. Sasoi haretan jarraitu beharreko pausuak ez ziren gaur egun besteko zehatzak. Egoitza barria egiten hasi zirenean anbulategi zaharrera lekualdatu ginen, eta hantxe jarraitzen dogu orain be.

*Donazinoek zer bilakaera izan dabe?*
Gaur egun, donante aktibo legez 1.250 lagun daukaguz. Erregistratuta 4.000 lagun daukaguz. Kasu askotan gurasoek seme-alabei pasatu deutsee donazinoaren testigua.

*Zein da odol-emailearen profila?*
18-25 urtera arteko odol-emaileak%4,96 dira, 26-45 urte bitartekoak %43,44, eta 46 urtetik gorakoak %51,6. Gazteen parte-hartzea bultzatu gurako geunke.

*Gazteak gitxiengoa dira, orduan.*
Datuen arabera, gazteak beste adin tarteetakoak baino gitxiago diren arren, askok kontzientzia handia daukiela azpimarratu beharra dago. Halan be, elkartetik gazteek erreleboa hartzeari garrantzitsua deritzogu. Belaunaldi aldaketa behar-beharrezkoa delakoan gagoz.


Iban Gorriti

"Alpino tabernako lokalean ekin geuntsan donazinoak egiteari, mendizale taldeko kideen ekimenez"

"Durangoko odol-emaileak oso fidelak dira. Maiz etortzen dira odola emotera; horreetako batzuk urtean hiru-lau bider"

*Donante barriak topatzea gatxa da?*
Ekainaren 15ean Odol-emaileen Nazioarteko Eguna denez, Euskalduna jauregian elkartu ginen. Topaketa horretan azpimarratu genduen ahoz ahokoa dela donazinoak bultzatzeko ondoen funtzionatzen dauen zabalkundea, eta donante batek beste bat ekartzea bultzatu gura dogu.

*Donantea izan gura dauenak zer egin behar dau?*
18 urte izan behar ditu. 50 kiloko pisu minimoa be eskatzen dogu. Hortik aurrera, donatzera etorri eta galdera batzuk erantzutea eskatzen deutsagu.

**José Martín Santibáñez •**

Mugarra elkarteko lehendakaria

- 58 urte ditu
- Administraria da

*Zer egunetan izaten da odola emoteko hitzordua Durangon?*
Urteko eguen guztietan hitzordua jarrita daukagu, arratsaldeko 16:30etik gaueko 21:00etara. Durangoko anbulategi zaharrean dogu gure egoitza.

*Egindako lanagaz pozik zagoze?*
Durango herri oso solidarioa da. Bizkaia mailan donazino gehien egiten dogunak gara. Emaileen artean fideltasun handia daukagu, eta maiztasun handiz etortzen dira. Urtean birritan jente asko etortzen da, baita lau bider be. Durangarrez gainera, inguruko herri batzuetatik be etortzen dira.

*40. urtemuga gogora ekartzeko ekitaldia antolatu zenduen joan zen astean.*
Landako Gunean joan zen zapatuan egin genduen ekitaldian ia 400 diploma banatu genduzen, elkartean parte hartzen daben odol-emaileen artean. Ekitaldi ha antolatzeko laguntza handia jaso dogu.

*Elkartearen urtemugan parte-hartzaileak omendu gura izan dozuez.*
Bai, hainbat lagunek hartu dau parte odola emoten, eta horreek omendu gura doguz. Elkartearen sortzaileak gogora ekarri gurako neukez, elkartea hona heldu bada eurei eskerrak izan delako. ■ Jone Guenetxea

# EKONOMIA>

>IURRETA

## Enpresa txikiak zein komertzioa sustatzeko bidea erraztu guran

Enpresa-proiektuen I. Lehiaketaren Deialdia egin dau Iurretako Udalak, 12.000 euroko saria lotuz

Iurretako herrigunean enpresa barriak sortzea sustatu guran Enpresa-proiektuen I. Lehiaketaren Deialdia antolatu dau Udalak. Batez be, produktuan, ekoizpen-prozesuan edo eskainitako zerbitzuan "ideia barriak" erakarri gura ditue, enplegua eta aberastasuna sortzen lagunduko dabenak eta bertako merkataritza birgaituko dabenak. Proiektuak irailaren 30a bitartean aurkeztu leitekez Udaletxean, eta irabazleak 12.000 euroko saria lortuko dau.

> Enpresa-proiektuak irailaren 30a bitartean aurkeztu leitekez Udaletxean

> Enpresa barria sortzeko ekimena sustatu gura dabe, eta bidea erraztu erabaki hori hartu dabenei



Preminazko baldintza da enpresa-proiektua herrigunean kokatuta egotea. Judit Fernandez

Enpresa barriak sortzeko ekimenak sustatu gura ditue, eta bidea erraztu norbere enpresa edo denda sortuz lanean hasi gura dabenei. Pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu leikie, proiektua herrigunean kokatzen bada eta hainbat arlo hartuko ditue aintzat, "lotesleak" izan ez arren: sustatzailea bertan erroldatuta egotea, orijinaltasuna, kalitatea, bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa, kalitatedun enplegu egonkorra sortzea, aukera berdintasuna sustatzea, teknologia barriak erabiltzea...

Durangaldeko Amankomunazgoko Enpresa Sorkuntza Sailaren bitartez laguntza bideratuko dabe.

> Saria hiru zatitan emongo dabe; obra eta jarduera lizentziagaz %20 jasoko dau irabazleak

Obra eta jarduera lizentziak lortzean emongo dabe sariaren %20; proiektua gauzatzeko establezimendua zabaltzeko lizentzia emotean, %50. Gainerakoa, urtebetera. Iñaki Totorikaguena alkateak harrera ona itxaroten dau, eta jarraipena izatea: "Lokal hutsen sentsazinoa desagertzea gura dogu, mogimendua sortu". ■ A. B.

>ELORRIO

## Fytasako kaleratze espedientearen kontsulta epea atzeratu dabe

Fytasak aurreikusi dauen behin betiko kaleratze espedienteak 19 langile botatzea jasotzen dau

Fytasa Taldeak aurreikusi dauen behin betiko kaleratze espedientearen kontsulta epea abuztuaren 3a arte luzatzea lortu dabe Ductilorreko langileek. Espedienteak 19 langile kaleratzea jasotzen dau, komiteak jakin eragin dauenez.

Joan zen asteko barikuan zuzendaritzagaz zeukien batzarra bertan behera geratu zen azkenean, ELAko Manu Fernándezek argitu dauenez: "Abokatuak bertaratzerik ez zeukala arrazoitu euskun enpresak. Egun horretan enpresan itxialdia egin genduen eta kontsulta epea atzeratzeko akordioa lortu genduen,".

> "Aparteko ordainsaria ikutu barik" bada be, prest dagoz erregulazino espediente zabalagorako

Fytasa Taldeko zuzeneko eskulana da Ductilorreko lan-taldea; Fytasak zuzendaritza eta salmenta saila batzen ditu. Langileak prest dagoz enplegu-erregulazino espediente zabalagorako "enpresak diru gitxiago galdu daian, baina, aparteko ordainsaria eta oporrak ikutu barik". ■ A. B.

>DURANGO

## Aldundiak 300.000 euro iragartzeari "lotsagarria" deritzo PSE-EEk

Espainiako Gobernuak Tokiko Inbertsino Fondoen bitartez Durangaldean milioiak itzi dituela dinoe

PSE-EEk "lotsagarria" deritzo Aldundiak eskualdeko enplegu plana sortzeko 300.000 euro erabiliko direla iragartzeari, eta Durangaldeko EAJko alkate bakar batzuekin egiteari. "Aldundia planak azaltzeaz arduratu beharko litzake eta udal guztiekin lan egiteaz. Krisi egoera honetan, enplegu eta formazino politikak gidatzen jarri behar leukez indarrak".

Espainiako Gobernuak Tokiko Inbertsino Fondoen bitartez Durangaldean hainbat milioi itzi dituela dinoe sozialistek: Durangon ia 5 milioi, hiru Zornotzan, edo 1,2 Abadiñon. Durangon 15 egitasmo garatuko direla gaineratu dabe —4,1 milioi euro— eta 214 langile beharko ei dira. Halan be, salatu dabe Durangoko Gobernu Taldeak "lanbakoen kontratazinoaren aurretik erizpide ekonomizistak" jartzen dituela: "Enplegu sorreraren aurretik jarri ditu erizpide ekonomikoak kontratuen adjudikazinoan".■ A. B.

> PSE-EEk dino "lanbakoen kontratazinoaren aurretik erizpide ekonomizistak jarri" dituela EAJk

■kolaborazinoa



Augusto Uriarte
Behargintza

### Aitita Luciok aspaldi esan zuen

Antza denez, nire anaiak eta ni berandu iritsi ginen behin familiarteko hitzordu batera. Horrek ez zion batere graziarik egin patriarkari, eta batzar batera deitu gintuen, puntualitatearen esanahiaz aritzeko. Zioenez, puntuala izatea, oinarrian, gainerakoak errespetatzea zen.

Puntualitateari buruzko hori, eztabadarik onartzen ez duena, beste modu batera mahaigaineratu nahi dut. Lan munduan gertatzen diren berandutzeak ekonomikoki zenbat balio duten neurtzeko gai bagina, gainerakoekiko errespetua baino gehiago dela ikusiko genuke. Adierazle horrek, errentabilitatea eta produktibitatea aztertzeko erabiltzen ez dena, erne jarriko gintuzke jarduteko modu hain ohiko horren aurrrean. Oraindik ez dugu ezarri neurri motibagarririk ordutegia betetzeko, baina iritsiko da hori ere.

> **Berandutzeak dirutan neurtzeko gai bagina, erne jarriko ginateke**

Batzuek ordutegi malgutasunarekin nahasten dute puntualitatea, baina, nire iritziz, egindako akatsaren aurreko azken defentsa moduan egiten dute. Malgutasuna lanpostuaren kalitatea hobetzeko txertatzen doan elementua da. Puntualitate falta ordurako heltzen garenok sufritu behar dugun okerjardute bat da.

Oso trebeak gara enpresariek lan munduan zer egin behar duten esaten, badakigu sindikatuen egitekoa zein den identifikatzen, baina, sarritan, gutako bakoitzari dagokionari aurre egiten kostatu egiten zaigu. Hobekuntzak beste batzuek egin ditzaten espero dugu.

Nik neuk ahalegina egiten dut Nes nire laguna ez dadin berriro ere nirekin haserretu, duela urte batzuk haserretu zen bezala mendi-ibilaldi baterako hitzordura berandu heldu nintzenean. Ordurako iristen ahalegintzen naiz. Bat edo bestek dioenez, nagusitzen ari naizelako jokatzen dut horrela. Dena delakoagatik dela ere, ordurako jarriko dugu hitzordua.

# KULTURA>



Argazkia: Kepa Aginako

**JAIALDIA>** EMANALDIAK

# Musikaire bigarren asteburua ospatzen

Zirkua, antzerkia eta musika zuzenean uztartzen dituen talde italiarrak Elorrioko plazako frontoian emandako ikuskizuna da goiko irudian jaso duguna. Aurten, uztailean zehar haizetara egingo diren kultur emanaldietako lehenengo biak joan zen asteburuan izan ziren.

Aurreko edizio batean ere Elorrion egona zen Ara Malikian biolin-jotzaile armeniarra izan zen 2009ko Musikaireri irekiera eman ziona, eta Italiako iparraldetik ekarritako kale antzerkia izan zen domekan, haur zein heldu frontoiko jesarlekuetan bildu zituena. Maila Sparapani eta Ferdinando D'Andria artistak izan ziren akrobaziak, musika eta antzerkia eskaini zituztenak. Trapezioak eta oihalak baliatzen dituzte, euren aireko akrobaziak egiteko eta *Vanjuska Moj* istorioa kontatzeko: Nando enpresari xelebre eta berbatiak Europa ekialdeko Maila artista ezaguna aurkeztu zuen Elorrion.

Txuma Murugarren ere badator Musikairera, uztailaren 4an Lourdesko ikastetxera, berak sortutako doinu eta berbak eskaintzera. Orain urte bi kaleratutako *Marjinalia* diskoko kantak aurkeztuko ditu Murugarrenek, kantetan jasotako istorioak kontatuz.

Hondurasetik ekarritakoak izango dira Teatro Bambú taldeak, domekan 19:30ean, Ateneoan eskainiko dituenak: *Mea culpa* antzezlanekoak. ∎ I.E.

> Bihar, 22:30ean, Murugarrenek 'Marjinalia' diskoa aurkeztuko du

12 > 'D-ur-ango' erakusketa

Astarloa Kulturgintza erakundeak arte sorkuntza bultzatzeko eskaintzen duen bekaren 2007ko proiektua aurkeztu dute Museoan.



13 > Aritza Rodriguezen Mortimer

Atzo Durangoko Tabiran eta uztail eta abuztuan Izurtzan eta Durangon eskainiko du Zaldibarko Aritza Rodriguezek 'Mortimer'.

ERAKUSKETA> AURKEZPENA

# 'D-ur-ango': herriaren aldaketa geografikoak Museoan ikusgai

## Gaurtik uztailaren 26a arte ikusgai da Iglesias anaiek osatutako erakusketa





Bideografik ekoiztetxeak egin du erakusketako ikus-entzunezkoa

Ismael eta Carlos Iglesias anai durangarrek Durangoko Udalak 2007an banatu zuen artista gazteen sorkuntzarako diru-laguntzarekin osatu duten lanaren aurkezpena izan dugu asteon. Gaurtik uztailaren 26a arte, Durangoko Arte eta Historia Museoan ikusgai izango da erakusketa.

"Historizista baino, geografikoa da sortu dugun erakusketa"

German Zorraquin durangarraren argazkiak dira tarteko

Durangoren bilakaera fisikoaren, aldaketa geografikoen isla diren ehundik gora argazki bildu dituzte Ismael Iglesias margolariak eta Carlos Iglesias kazetariak. Asmoa euren herriari buruz hainbat artxibo eta kutxatan gordeta zeuden dokumentu grafikoak berreskuratu eta argitara ateratzea izan da: Ismaelek azaldu duenez, "historizista baino, erakusketa geografikoa" egin nahi izan dute. Horregatik, diotenez, argazki bakoitzaren data zehaztu barik irudiak bere horretan erakustea hautatu dute.

Museoko lehenengo solairuko hormetan, German Zorraquin argazkilari durangarrak gerra aurretik zein ostean ateratako Durangoren hainbat ikuspegi –Gerediaga elkarteak erakusketarako lagatakoak–, gaur egungo zein 1700 urteko herriko planoak eta koadroak bildu dituzte.

**Erakusketa oso bisuala**

Durangoren hedatzea eta eraldatzea azaltzen duen "erakusketa oso bisuala" prestatu nahi izan dutela nabarmendu dute Iglesias anaiek. Horregatik, bildutako materialaren osagarri, Bideografik ekoiztetxeak sortutako ikus-entzunezko lan bat ere osatu dute Museoaren bisitarientzako.

Berreskuratutako irudiak berriro iluntasunean geratu ez daitezen, Museoan erakutsi eta gero, urteek ahultzen duten memoria berreskuratzeko lagungarri izan dadin, zaharren etxean ipini nahi dute erakusketa.

GEURE DURANGALDEA



Jon Irazabal
Gerediagako kidea

# Muruetatorre

1978. urtean, gutxi gorabehera, Iurretako talde batek Muruetatorre botatzeko planaren berri izan genuen. "Adituek" balorerik ez zuela esan ziguten baina gu beti bezala "txarrak" izan ginen eta eraikuntzaren historia eta noizkoa zen arakatzen hasi ginen.

Kasualitatez, uda hartan Tiliño eta Maritereren etxean Bartzelonako unibertsitateko irakasle bi zeuden; Josep Moran Ocienjauregi eta Monserrat Pages. Euren iritzia Muruetatorre zutik mantentzea merezi zuela zen, eta euren premiazko txosten batekin hasi ginen lanean. Handik lasterrera, Muruetatorre ez botatzea eskatzen zuen idatzia prestatu genuen, eta, Iurretan antolatuta zeuden talde guztien adostasuna jaso ondoren, Durangoko Udalean aurkeztu genuen.

Bestalde, Periko Basañez arkitektoaren laguntzarekin, Madrilgo Gobernuak Bizkaian zuen kultur ordezkariak babeserako txostena zabaltzea lortu genuen. Ondorioz lortu genuen (edo pentsatu genuen lortu genuela) botatzeko plana bertan behera uztea eta Muruetatorre babestea. Ondarearen aldeko gure lehen borroka izan zen eta, ondorioz, guretzat etxe berezia da... Beti zain egon gara, noiz zaharberrituko zuten XVI eta XVIII. mendeetan eraikitako etxea. Poztu ginen etxea konpontzen hasiko zirela irakurrita, baina... gutxi iraun du pozak. Ezin sinistu: etxe guztia bota dute, hiru horma izan ezik.

Arkitektoek gonbidatuta bisitatu genuen obra, egiten ari diren lanak ezagutzeko. Egia da, oraingoan, etxearen egoera txarra zela medio bota behar izan dutela. Baina ohituratzat hartu da babestutako etxeetako aurrealdeak bakarrik mantentzea, hori delakoan balioa duen bakarra. Kultur ondarea transmititzea ez da antzerki dekoratuz betetako uri bat eraikitzea. Mantendu behar den iraganak du eta behar du izan tokia gure herrietan, baina horretarako aurkitu behar diogu eraikuntza bakoitzari bere funtzioa, eta edozein funtziok ez dut balio.

ARGAZKIGINTZA> LEHIAKETA

# Uztailaren 12an jakinaraziko dituzte Rallyaren emaitzak

## Ia 30 lagunek hartu zuten parte domekako Zaldibarko Argazki Rallyan, eta uztailaren 12an egingo dute sari banaketa ekitaldia



K.Aginako

Joan zen asteburuan, ekainaren azkenengoan, izan zen Zaldibarko Udalak babestu eta herriko Ilargi argazki taldeak antolatzen duen argazki lehiaketaren eguna. Hogeita seigarren edizioa izan du lehiaketak aurten.

Antolatzaileen berbetan jaso dugunez, azken urteetako joera mantendu egin da aurten ere, eta ia 30 lagun izan ziren joan zen asteburuan Zaldibar eszenatoki izan zuen Argazki Rallyan.

Euren kamera digitalekin domekan egin zituzten argazkietatik lehiaketara aurkeztuko dituztenak hautatzeko aukeraketa egiten dabiltza orain parte-hartzaileak. Datozen egunetan aurkeztuko ditu bakoitzak bere argazkiak, eta epaimahaiak uztailaren 10ean egingo du jasotako argazki guztien balorazioa.

Ilargi argazki taldeak antolatu du aurten ere Zaldibarko Argazki Rallya

Zer argazki aurkeztu egunotan erabakiko dute argazkilariek

Atzerriko parte hartzaileak ere izan ziren zapatuko zitan

Uztailaren 12an egingo dute Olazarren duten lokalean sari banaketa

Bukatzeko, uztailaren 12an Ilargi taldeak Olazar kalean duen lokalean izango da Argazki Rallyaren sari-banaketa ekitaldia.

Euren argazkiak egiterakoan ardatz eta oinarri moduan hartu behar zituzten gaiak jakinarazi zizkieten antolatzaileek goizean herrira ailegatu zirenean argazkilariei: soka, pinudia, herriko ikuspegia, begirada eta gai libre biren inguruan osatu behar izan zituzten parte-hartzaileek Zaldibarren zehar euren irudiak.

Argazki Rallyaren egunean Durangaldean zeuden atzerritarrek eta Euskal Herriko hainbat tokitatik etorritakoek hartu dute aurtengo edizioan parte, baina, batez ere, nabarmentzeko datua da argazkilarien erdia zaldibartarrak izatea. Zazpi eta zortzi urte inguruko umeak ere aritu ziren argazkiak egiten. ■ I.E.

ANTZERKIA> ELKARRIZKETA

# “Obrak tristura zein barregura eragin deutsela dinoste ikusleek”

Uztailaren 30ean Izurtzan izango den AHTaren kontrako akanpadan eta abuztuaren 28an Durangoko Kurutziaga Hotelean ditu **Aritza Rodriguez** zaldibartarrak urtebetez landu dauen ‘Mortimer’ antzezlanaren emanaldiak. Orain urte bira arte Buenos Airesen sakondu dauen clown teknikagaz, heriotzari buruzko bakarrizketa dakarsku Rodriguezek


Kepa Aginako

***Leioako Umore Azokan aurkeztu zenduen ‘Mortimer’. Zelan joan zen emanaldia?***
Maiatzean Leioako Umore azokan egin genduen lanaren estreinaldia, eta oso harrera beroa egin eutsan jenteak.

***Noiz sortutako lana da?***
Prozesu nahiko luzea izan da; orain urtebete hasi ginen, Gorka Zero “Ganso” eta biok, *Mortimer* sortzen. Bion artean prestatu genduen lana; dramaturgia eta istoriaren nondik norakoa lotu genduzen. Ondoren, Kukubiltxoko Josugaz lana euskarara itzuli eta findu neban.

> “Eraldaketa asko egin deutsadaz urte honetan zehar hasikeran osatutako lanari ”

***Asko landutako lana, beraz.***
Bai, azaroan Bilboko Kukutza gaztetxean erakutsi neban lehenengoz lana, baina ordutik eraldaketa handia izan ditu. Beste hasiera eta amaiera bat bilatu deutsaguz azkenean lanari.

***Bakarrizketa da ‘Mortimer’.***
Bai, baina bakarkako lan honek jateko lain emoten ez dauenez, hainbat talde-lan egiten ditut aldi berean: Hortzmuga, Koblakari eta Kukubiltxo taldeekin be egiten dot lan. Aurretik, *Juntos y difuntos* antzezlana sortu genduen Argentinan. Ha be clown teknikagaz egindako heriotzari buruzko lana zen. Desberditasuna orduan zuzendaria izan genduela da.

***Ikuskizun honetan, barriz, zeu zara zeure zuzendari...***
Argentinan egun gitxitan lortu genduen antzezlana prestatzea; *Mortimer* sortzea, aldiz, luzeago joan da... oso zorrotza naz.

***Amaitutzat emon dozu?***
Bai, baina halako bakarrizketetan ekinaldi bakotxa desbardina izaten da: clown teknikak daukan berezitasuna da antzerkian esaten deutsagun laugarren pareta bota egiten dauela. Publikoaren parte-hartzeak eragiten dau ekinaldi bakotxa desbardina izatea. Baina, bai, dramaturgia eta antzezlanaren estruktura finkatuta dagoz.



***Argentinara zer joan zinen, ikasketak egitera?***
Orain ia urte bi etorri nintzen Argentinatik. Buenos Airesen antzerkia eta zirkua ikasten egon nintzen, eta *Juntos y difuntos* obra sortu eta Argentinan zehar, Bolivian, Perun eta Brasilen erakusten jardun genduen gero.

***Aurretik baina, hemen be antzerkian aritu zinen?***
Bai, Barakaldoko Antzerki Eskolan ikasi neban, eta antzerki profesionalean Kukubiltxo taldeagaz hasi nintzen.

***Argentinara joateko erabakia zergaitik hartu zenduen?***
Batetik, bidaiatzea gustuko dodalako; Indian be egon naz, hango aintzinako antzerki mota bat ikasteko. Bestetik, Buenos Airesen antzerki maila oso ona dagoelako, antzoki piloa dagozelako. Han topatu dogu antzerkia egiten dauen jente asko, eta gura dozun antzerki mota guztiak ikasteko aukera dago...

***Beti landu izan dozu clown teknika edo han ikasi zenduen?***
Barakaldoko Antzerki Eskolan ikasgaietako bat zen, baina Dario Levin ezagutu genduen Buenos Airesen: beragaz ikastaro batzuk egin, eta asko-asko gustatu jatan clown teknika.

***Zer dauka ba berezirik?***
Edozertaz berba egiteko aukera emoten dau clownak: sudurdun pertsonaia bati badirudi baimendu egiten jakola edozertaz berba egitea, beharbada pertsonaia inozentea dirudielako. Kukubiltxogaz egiten dodan *Haritzaren azalera zehatza* lana, aldiz, dramatikoagoa da.

***‘Mortimer’ oso-osorik zeurea izatea berezia izango da...***
Asko betetzen zaitue halako proiektuek: lorpenak zeure-zeureak dira, baina akats eta buruhausteak be zeuk bakarrik igaro behar izaten dozuz. Taldean, gauza on zein txarrak denen artean banatzen dira.

> “Dario Levin ezagutu eta beragaz ikastaro batzuk egin genduzen Buenos Aireseko egonaldian”

***Zelan hartzen dabe ikusleek ‘Mortimer’?***
Pailazoa eszenara ateratzen denean, burla moduan egiten deutsie umeek, baina, azkenean, aho zabalik geratzen dira denak. Heriotzaren gaia lantzen dot, eta umeei zuzenduriko lana ez den arren, asko gustatzen jake eurei be. Tabua denez, erakargarri egiten jake heriotzaren gaia helduei zein umeei. Heriotzari buruzko erreflexinoa da.

***Zer esan izan deutsue antzezlana ikusi dabenek?***
Tristura eta barregura eragin deutsela; obran zehar gorabehera emozional handiak dagoz.

***Zer kontatzen dozu lanean?***
Denok elkarrekin bidaia bat egitea da proposatzen dodana: bestaldean bere zain daukan maitaleagana joateko suizidio kolektibo bat proposatzen dau Mortimerrek. Tartean, bere maitalea zelan hil zen deskubritzen da, eta gaurko gizarte kapitalistari kritika eginez amaitzen da.

***Hegoameriketako eta hemengo ikuslegoa antzekoak dira?***
Argentinan, esaterako, umore oso psikologiko eta landua dabe gogoko; oso ohituta dagoz kale antzerkira. Boliviar eta brasildarrei barregura gehien aurpegiko espresinoek eragiten deutsee; gauza fisikoek eragiten deutsee gehien. Bai hemen bai han, egiten dodanagaz dibertitzen nazenean funtzionatzen dabe antzezlanek ondoen.

***Zirkua be lantzen dozu...***
Bai, eta musika be zuzenean jotzen dot *Mortimer*-en. Soinua jotzen dot. Eta zirku numero txiki bat egiten dot; zirkua sartzea justifikatua egon daiten gustatzen jat, antzezlanaren barruan egotea. Antzerkilarion erremintà nagusia geure gorputza, ahotsa eta geure burmuina dira. Zenbat eta prestatuagoa eduki gorputza be, emaitza hobeak izango dira antzerkian. Akrobaziek gauza oso espektakularrak egiteko aukera eskaini ahal deutsie aktoreari. ■ I.E.

**DANTZA>** IKUSKIZUNA

# Peruko dantza garaikide emanaldia: 'Paso Doble'

## Uztailaren 4an da Mirella Carbone perutarraren dantza garaikide emanaldia San Agustinen



Donostiako Dferia azokak eskainitako aukera paregabeari esker, 18 minutuko dantza garaikideko pieza izango da bihar, uztailaren 4an, 22:30etik aurrera San Agustin kulturgunean ikusgai.

Mirella Carbone dantzari perutarrarengana eta berak osatutako dantza lan berezira gerturatzeko aukera eskaintzen digu Donostian ospatzen den Dferia azokak; lehenengo aldiz, azoka horretara datozen artista hegoamerikarren lana beste hainbat herritan ere ikusgai izango da.

Margaret Lengtan egilearen musikak gidatuko ditu sei urterekin dantzan hasi zen eta gaur egun 55 dituen Mirella Carboneren pausoak. "Dantzaren bitartez irudiak sortzea" du helburu nagusi Carbonek, eta mahai bat eta arbela bat baliatzen ditu, besteak beste. Diskurtso eta moral bikoitzaeta norbera den bezala agertzeko beharraren inguruko gogoeta oinarri duen lana da *Paso Doble*.

> Sei urte zituenetik egiten du dantza Mirella Carbonek

**'Caidos del cielo'**

Lantokia Durangon duten antzerki konpainia profesional bietako baten, Ganso & Cia taldearen, emanaldiak gidatuko du ikuslea Mirellla Carboneren dantza garaikideko *Paso Doble* ikustera San Agustinera. Uda Kalean Bizi kultur programazioaren barnean aurkezten diguten kaleko clown ikuskizuna da uztailaren 4an, 21:30ean, Santa Ana plazan eskainiko dutena. Cetxu Paganini eta Gorka Zero antzezleak dira zerutik eroriak, Durangoko kaleetan galduta ibiliko direnak, eta San Agustinerako bidea egingo dutenak. ■ I.E.

> Musika bereziak laguntzen duen dantza garaikidea ikusgai

> 'Paso Doble'-ren aurretik, 'Caidos del Cielo', Santa Anan bihar

**ANTZERKIA>** EMANALDIA

# Banarte antzerki taldearen ikastaroko emaitzak

Abadiñoko Banarte antzerki taldeak antolatutako lehenengo antzerki ikastaroaren amaieran eskainitako antzerki emanaldia izan zen zapatuan Traña-Matienako Errota kultur etxean.

*La abuelita de Batman* izenekoa izan zen Banarteko ikasleek eskaini zuten antzezlana, Alejandro Licona mexikarrak idatzitakoa. Bai ikastaroaren bai antzezlanaren zuzendaritza ere Eva Guerrero Ricoren ardura izan dira.

**Gizarte kritika garratz eta umoretsua**

Umorez, gaur egungo gizarteari kritika garratza egiten dion lana da Banarte antzerki taldeak antolatzen duen ikastaroan parte hartzen duten lagunek oholtzaratzeko aukeratu zutena.

Antzerkigile mexikarraren jatorrizko lanean bost zatik osatzen dute *La abuelita de Batman*, eta horietariko lau hautatu dituzte Banartekoek abadiñarren aurrean eskaintzeko. Elkarrekin loturarik ez duten lau skecht eskaini zituzten Errotan: *Me quieres a pesar de lo que dices*, *Sidaharta*, *Serenidad y Paciencia* eta *Tiempos Modernos* eman zituzten zapatu gaueko emanaldian.



K.Aginako

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net

UZTAILAK 3 22:00etan
HANK-EN OROIMENEZ
KONTZERTUA.Sarrera: 10 euro.
UZTAILAK 4 21:30ean
VALIENT THORR +
SEXTY SEXERS + POSITIVA
KONTZERTUA.Sarrera: 10-12 euro.
UZTAILAK 24 22:00etan
IV. GAU ELEKTRONIKOA
DJ GONBIDATUA + ETXEKO DJak
DJ FEST.Sarrera: 5 euro.
Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300


Andrezj Olejniczak Quartet
Etxezarreta Parkean, Uztailak 3, 20:30ean
Mirella Carbone
Paso Doble - Danza ITINERANTE
San Agustin k. gunean, Uztailak 4, 22:30ean
Caidos del Cielo
Ganso & Cia
Santa Ana plazan, Uztailak 4, 21:30ean
San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

HITZ
Liburu denda
Artekale, 14 DURANGO
Tf.: 94 681 07 76


2009ko Udako
ZALDIBAR
San Andres Jaiak
anboto

# zaldibarko jai egitaraua

## UZTAILAK 3, BARIKUA

• **19:00etan** Donien-atxa neurtu.
• **19:00etan** Herritarrek donien-atxa ipiniko dabe.
• **19:30ean** Jaien hasiera iragartzeko, Udaletxetik txapligua jaurtiko dabe. Gero kalejira, Koral elkarteko trikitilariekin eta buruhandiekin.
• **19:30ean** Trikibertsopoteoa, txosnaguneak antolatuta.
• **20:00etan** Odoloste-jana Bekoetxe kalean.
• **21:30ean** Herri-afaria txosnetan. Afalostean topa egingo dogu.
• **22:30ean** Zerupeko zinemaldia eskoletako pilotalekuan.
• **24:00etan** Amaiur taldeagaz erromeria, txosnaguneak eratuta.

## UZTAILAK 4, ZAPATUA

• **11:00etan** 3x3 saskibaloi torneoa, Euskal Herria etorbidean.
• **11:00etatik 13:00etara eta 17:30etik 19:30era** Merkatu txikia, fonotekan.
• **12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara** Gazteluak, txirristak, ludoteka, kart zirkuitua, zezen mekanikoa eta aparra eskoletan.
• **19:00etan** Txanogorritxu rock taldearen kontzertua eskoletan.
• **19:30ean** Berrizko eta Zaldibarko dantza taldeen emanaldia Olazar pilotalekuan.
• **22:00etan** Kale animazinoa Orkresta taldeagaz (Elektrotunako partaide ohiak). Txosnaguneak antolatuta.
• **23:00etan** Geiser taldeak girotutako dantzaldia Euskal Herria etorbidean.
• **24:00etan** Habeas Corpus eta Vendetta taldeen kontzertua txosnetan. Txosnaguneak antolatuta.

## UZTAILAK 5, DOMEKA

• **11:30ean** Meza San Andres parrokian.
• **12:00etatik 14:00etara** Umeendako arku jolasak, Jose Antonio Agirre parkean. Euria balitz, arku taldearen galerian.
• **12:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 19:30era** Merkatu txikia fonotekan.
• **17:00etatik 20:00etara** Eskulan erakusketa Jubilatuen Etxearen azpiko solairuan.
• **18:30ean** Zaldua plazan, 'Balkoitik Balkoira' bertso-saioa: Igor Elortza, Maialen Lujanbio eta Amaia Agirre.
• **20:30ean** Argote anaiak, zirku ikuskizun eta kale antzerkia txosnetan. Txosnaguneak antolatuta.

## UZTAILAK 7, MARTITZENA

• **17:00etatik 20:00etara** Eskulan erakusketa Jubilatuen Etxearen azpiko solairuan.
• **19:00etan** Txosnen arteko V. Olinpiadak Jose Antonio Agirre parkean. Ondoren luntxa txosnetan.
• **20:00etan** Herritarrendako afari-merienda Olea kalean: solomoa (1€) eta sardinak (1,50€ ).
• **20:30ean** Luntxa txosnetan.
• **23:00etan** Hesian eta Blitztraktor taldeen kontzertua txosnetan.
• **23:30ean** Joselu Anaiak taldeak girotutako dantzaldia Euskal Herria etorbidean.

## UZTAILAK 8, EGUAZTENA

• **11:00etan** Kalejira, Euskal Herriko trikitilari gazteen XVI. txapelketako txapeldunekin.
• **13:00etan** Meza San Andres parrokian. Jarraian dantzariak.
• **17:00etatik 20:00etara** Eskulan erakusketa Jubilatuen Etxearen azpiko solairuan.
• **18:00etan** Afizionatuen arteko pilota partidak Olazar pilotalekuan.
• **19:00etan** Rollers eta Skaters erakustaldia.
• **23:00etan** Su artifizialak Askorra kalean.

## UZTAILAK 11, ZAPATUA

• **8:00etatik 14:00etara** Mendi-ibilaldia. Irteera: Zaldua plazan.

## UZTAILAK 12, DOMEKA

• **11:30ean** Meza San Martin ermitan.
• **12:00etan** Argazki digital emanaldia eta sari banaketa futbol zelaiko ekitaldi-aretoan.
• **16:30ean** Durangaldeko Eskolarteko II. Pilota Txapelketaren finala Olazar pilotalekuan.




MUELLES ZALDUA
EDUARDO JAUREGIBARRIA
GERENTE
Avda. San Andrés, n.º 1
48250 ZALDIBAR (BIZKAIA)
Tfno.: 946 82 78 01/02
Fax: 946 82 76 54

Juan Ramon Azkonizaga
Ortuzar auzoa, 1 - IZURTZA Biltegia: 94 681 06 52
Banatzailea:
Alcorta



# Musika, bertsoa eta dantza jaien ardatz

## Habeas Corpus eta Vendetta taldeek kontzertua emongo dabe

Txapligua jaurtitzeagaz batera, kultura ekitaldiz betetako jaiei hasiera emongo jake Sanandresetan. Gaur bertan, gauerdian, erromeria izango da Amaiur taldeagaz txosnetan. Bihar, barriz, Txanogorritxu rock taldeak kontzertua eskainiko dau eskoletan, eta 24:00etan, barriz, Habeas Corpus taldearen doinu gogorrak eta Vendettaren doinu dantzagarriak uztartuko dira txosnetan.

**Domekan balkoitik balkoira bertso kantari ariko dira Elortza, Lujanbio eta Agirre**



Kontzertuez gainera, Berrizko eta Zaldibarko dantza taldeen emanaldia be ikusi ahal izango da Olazar pilotalekuan 19:30ean, eta ikusi ez eze dantzan egin gura dauenak, Geiser taldeak girotutako dantzaldia izango dau Euskal Herria etorbidean, 23:00etatik aurrera. Domekan, 18:30ean, bertso saioa eskainiko dabe Igor Elortzak, Maialen Lujanbiok eta Amaia Agirrek, Zaldua plazan, balkoitik balkoira abestuz. 20:00etan kale-antzerkia izango da txosnetan, Argote anaien eskutik. Martitzenean Hesian eta Blitztraktor taldeen kontzertua izango da, 23:00etan; Joselu Anaiak Euskal Herria etorbidean ariko dira 23:30ean.

# Jaietan lehiakortasunik ez

Kirolak aurreratuta heldu dira jaietara, ekainaren 26, 27 eta 28an jokatutako eskualdeko XIX. Areto-futbol Txapelketagaz. Baina, gaurtik aurrera be izango da kirol ekitaldirik. Bihar 3x3-ko saskibaloi torneoa jokatuko dabe Euskal Herria etorbidean.

Martitzenean olinpiadak jokatuko ditue Jose Antonio Agirre parkean, 19:00etan hasita. Eguaztenean, barriz, afizionatuen arteko pilota partiduak jokatuko dira Olazar pilotalekuan, 18:00etatik aurrera, eta 19:00etan, barriz, rollerren eta skaterren erakustaldia ikusi ahal izango da. Eta, 2009ko jaiak, kirolari jagokonez, Durangaldeko Eskolarteko II. Pilota Txapelketaren finalagaz amaituko dira, 16:30ean, Olazarren.

**Eguaztenean pilota partiduak jokatuko ditue Olazarren eta, ondoren, roller eta skaterren erakustaldia be egingo dabe**

# Jan-edana, noiznahi eta nonahi

Berrizko eta Apatako jaien ondoren, heldu dira Zaldibarko Sanandres jaiak. Gaur, arratsaldeko 19:00etan, herritarrek donien-atxa ipiniko dabe, berori neurtu eta gero. Eta ordu erdi geroago, jaien hasiera iragartzeko udaletxetik txapligua jaurtiko dabe.

20:00etan, odoloste-janagaz tripa bete ahal izango dau Bekoetxera gerturatzen denak. Bapo geratzeko beste aukera bat, ordubete geroago txosnetan egingo daben herri-afarira hurreratzea izan leiteke.

**20:00etan hasita odoloste-jana egingo da Bekoetxen, eta 21:00etan, barriz, herri-afaria izango dau txosnetara gerturatzen denak**

Baina, jan kontuak ez dira hor amaituko Zaldibarren; martitzenean be, herritarrek afari-merienda izango dabe Olea kalean, 20:30ean, eta ordu erdiren buruan luntxa, txosnetan.

Dana ez da jan-edana izango. Esaterako, eguaztenean su artifizialekin gozatzeko aukera egongo da Askorra kalean. Martitzenean, barriz, eskulan erakusketa egongo da Jubilatuen Etxeko azpiko solairuan.






BARATZA
FRUTAK, BARAZKIAK ETA URDAIKIAK
Barazki ekologikoak ditugu
Done Isabel, 2 - Behea • Tel.: 94 622 50 63 • 48250 Zaldibar

Irantzu
Euskalherria, 8
Tel.: 94 682 21 90 • Fax: 94 622 52 76
48250 ZALDIBAR (Bizkaia)




2009
SORGIN
Tel.: 946 225 478
ZALDIBAR
BAR NEGU-GOGOR
Tfnoa. 94 682 70 03
ZALDIBAR (Bizkaia)
zaldibarko jaiak
PAULAREN ZOKOA
Paularen zokoa KAFE
7:00retatik aurrera zabalik
946550481 zaldibar
amets
CASTET ELKARTEA
Zaldibar
busti zaitez jaietan!
ZALDIBARKO BATZOKIA
• Eguneko menua • Razioak
• Karta • Ospakizunak
• Gosariak
ondo pasa!

# ERITZIA

## Gutunak

### Delimitadoreak

*"No he estado con los delimitadores de las primaveras"*, aditu diot Silviori eta, azken aspaldian, Durangon eta Euskal Herriko zenbait herritan mugatzaile lanean dabiltzan kolore guztietako delimitadoreez akordatu naiz. Haga luzeak eskuan hartuta ibili dira, gure herrietako kaleetan barna lurretik hainbat metrora eskegita utzitako irribarreak lapurtzen. Goitik behera beltzez jantzitako izorratzaile profesionalak gehientsuenetan, opa diguten etorkizunaren adierazgarri. Beltza eta ongi izorratua.

Jaurlaritza berriak euskal presoon argazkiak erretiratzeko agindua eman du, eta diligentzia beldurgarriz (edo are ubelgarriz, Galdakaon borrek utzitako arrasto iluna kontuan hartuz gero) ekin diote maizter berriaren manuari etxaldeko zaunkariek (betikoek). Helburua, "inpunitate espazioak" garbitzea omen da. Hotzikara eragiten duen higienea darabilte hauek. Duela urte parea, gaur egun frantziar presidentea den Fatxozik antzeko promesa egin zuen. Orduan, frantses hirietako periferian dauden auzoak, karcher-a hartuta garbituko zituela esan zuen. Dirudienez, bazter auzoak zikintzen dituen jendaila ("la racaille") kanporatu beharra zegoen. Aski ezagunak dira ondoren lehertu ziren istiluak.

Han eta hemen, boterearen garbizalekeria grisa, aniztasunaren kolore biziak ezabatu nahi dituen araztasunaren nozio uniformatzailea. Euskal Herrian, beraz, jaietako gune herrikoienetan (hauek ere, Frantzian bezalatsu, periferian eta jendailaz beteta?) muturra sartu eta makil-dantzari ekin diote. Lehen, horman itsatsitako mezuak denbora luzea iraun zezakeen. Hormaren zimurrek paperaren zimurrekin bat egin arte. Halakoetan mezua paisaiaren parte bihurtzen zen, kasik bertan desagertzeraino. Nago, zentzuaren atzaparrek zimur artean mezua desager dadin ekiditea lortu ote duten.

Baina ikurren ehiza honi, erregimen anakronikoen ustel usaina dario. Delimitadore profesionalek, haien estatistika, kalkulu eta burokrazia grisean mugatu nahi dute elkartasuna. Nola lot liteke, baina, elkartasuna den izate bizi eta bihurria? Izan ere, debekuek eta zigor arbitrarioek elkartasuna eragiten dute. Nolabait, injustizia enpatiaren iturri dela esan liteke. Zanpatua dagoenari eskua luzatzea, jarrera zinez naturala da, naturala denez. Debekuak, zigorrak... injustizia orobat, ongi ezagutzen dugu Euskal Herrian, elkartasuna oroz gaindi, ezaguna den bezalatsu. Auzo, kirol, kultur... elkarteetatik hasi eta herri mugimenduen aberastasuna ikustea besterik ez dago, elkartasunaren errotzeaz konturatzeko. Egoera honetan euskal presoen argazkiak zirtzilztea zeharo antzua dela iruditzen zait.

Nik aparteko poltsa batean gordetzen ditut hona iristen diren letrak. Erremitean azaltzen diren izenak kontatzen hasiz gero, bi eskuetako hatzak gutxi, oso-oso gutxi dira. Nondik dator, luma hartuta zientoka kilometrora dagoen horri hitz parea bidaltzeko bultzada? Nola mugatu lumaren dantza? Nola isildu berau eragiten duen melodia eztia? Nirearen antzeko zenbat poltsa daude espainiar eta frantziar espetxeetan sakabanatuta? Zenbat izen, luma eta hitz? Gure ikur eta argazkiak hautsiko dituzte, seguruenik, haien amorruak amoratuko gaitu gu. Baina Euskal Herriko zoko-moko guztiak, irribarre errebeldez gainezka esnatuko dira eten gabe. Etenik ez duen elkartasunez.

Garbizalekeria asasinoaren jo-puntu izan den Jon Anza gogoan.

Oier Gonzalez Bilbatua. Villefranche-sur-Saôneko espetxean

**Santa Ana Plaza 6, 48200 Durango - astekaria@anboto.org**
**Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.**

**Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

*DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO*

## kolaborazinoa



Idoia **Agorria**

### Gaitasun urrikoak baztertzen ditugu?

Jendeari gaitasun urrikoak baztertzen dituen galdetuz gero, ezetz erantzungo dizu; arrazakeria, sexu-aukera, egoera sozioekonomiko eta abarrengatik galdetuz gero bezala. Dagoen bazterketa motarik okerrenetakoa ez-egitezkoa da, ordea. Arazoak gertutik eragiten ez dizunean ez duzu ikusten, eta okerragoa dena, ez deritzozu arazoa denik ere. Horregatik da garrantzitsua denok ez garela berdinak ulertzea, denok ez ditugula ahalmen berdinak, eta gure bizitzan zehar denok igarotzen garela geure kabuz bizi ezin dugun aldietatik.

Minusbaliatua izatea ez da gaixorik egotea. Minusbaliatua izatea oztopo fisiko eta/edo mentalez josiriko labirintoan harrapatuta egotea da; gizarteak ahaztu eta estigmatizatzen duen labirintoan. Gurpildun aulkian doazen, gorreriaren isiltasunean bizi diren edo bestelako buru-garapena duten pertsonek nik eta zuk besteko eskubidea dute lan duina izateko, zinera joateko, dantzarako zein oporretarako. Ez da ulergarria, beraz, XXI. mendean ezberdin begiratzen dituen eta aukera berdinik eskaintzen ez dien enpresa eta pertsonak egotea.

Egoera kafkiar baten adibide da beharrizan bereziko familien Durangoko Geu Be elkarteak uda honetan bertan bizi izan duena. Bidaia ordaindu eta gero, Air Europak lau kideren osasun-ziurtagiria eskatu zien, hegazkinera igo eta handik jaitsi zitezkeela ziurtatzeko. Arazoa prentsan agertu eta Air Europak akatsa onartuta konpondu zen.

Nire zalantza da zer gertatu izango ote zen talde baten arazoa barik pertsona bakar batena izan balitz, eta elkarteak gertatutakoa komunikabideetan salatu izan ez balu.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

anboto
durangaldeko astekaria
Anboto komunikabideak Elkartea
2009ko uztailaren 3a - 8. urtea - 337 zk.

Laguntzailea: BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia
Eta honako Udal guztiak:
Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria, Mallabia, Otxandio, Zaldibar

**Zuzendaria**: Jone Guenetxea.
**Erredakzio burua**: Joseba Derteano.
**Administrazioa**: Itziar Belar eta Miren Abasolo.
**Publizitatea**: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
**Erredakzioa**: Aitziber Basauri, Maria Gonzalez., Itsaso Esteban, Markel Onaindia
**Testu zuzentzailea**: Igor Elortza.
**Maketazioa**: Ainhoa Arizmendiarrieta.
**Argazkilariak**: Iban Gorriti, Judit Fernandez eta Kepa Aginako.

Anbotok ez dau bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, eritzi artikuluetan edo gutunetan adierazotako esanen eta eritzien erantzukizunik.

# AGENDA

> ANBOTOko agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Uztailaren 5ean, 19:30ean

## PENEZ ETA AMETSEZ

Aurreko gauean edandako alkoholaren atzaparretan esnatzen da Jesus, pattar-trago baten irrikaz, ajeak eta bizitzak berak sentiarazten deutsiezen oinazeak jasan ahal izateko. Horrelaxe abiatzen da Musikaireren eskutik Teatro Bambúk dakarskun *Mea culpa* antzezlana. Jesusek Demetrio dauka alboan, beste alkoholiko bat. Bide berean dabiltza biak, eta hari berbetan hasiko da Jesus zabal, ametsez, penez eta alaitasunez.

## uztaileko agenda

**Uztailak 4-5-11-12** • Iurreta Txirrindulari Elkartea
08:00 Iurretatik Iurretara. (90-100km)

**Uztailak 3-4-5** • Amatzako auzoko jaiak
3 - 20:00etan Donien Atxaren igoera / 22:00etan Dantzarien azken entsaioa.
4 - 11:30ean Uraren bedeinkazioa. Meza nagusia eta luntxa.
5 - 11:00etan Trikitilarien kalejira / 11:30ean Meza nagusia
12:00etan Amatza auzoko dantzariak / 15:00etan Bazkari herrikoia.

**Uztailak 8-12** • San Andres auzoko jaiak (8 S.Isabel)
8 - 11:45ean Txupinazoa / 12:00etan Meza nagusia / 16:00etan Briska txapelketa
12 - 11:00etan Meza nagusia. Ondoren luntxa eta igel txapelketa.

**Uztailak 10** • Arriandi auzoko jaiak (San Kristobal eguna)
20:00etan Mesa Azkorrako baselizan. Jarraian sardinak, edariak eta gozokiak.

**Uztailak 13-17** • Gizarte Ongizate Saila (Internet zuretzat ikastaroa)
Tokia: Ibarretxe kultur etxeko aparkalekuan (14 ordenagailuz hornitutako autobusa)
09:30 - 11:45 eta 11:30 - 13:15 (bi txanda)
Oharra: Uztailaren 1etik 8ra internet zuretzat ikastaroetan izen emate epea zabalik

IURRETAKO UDALA

## UZTAILA

**Uztailak 5**
Mendi Bizikleta: Superprestigio Massi-Espainiako Opena 2009 Finala (goizez)

**Uztailak 6**
- Udaleku irekien hasiera.
- Euskara ikastaro trinkoa DBHko ikasleentzat, uztailaren 24ra bitartean.

**Uztailak 8**
Hipika. Berrizko Dukiena elkartean. DBHko ikasleentzat.

**Uztailak 10**
Zinema emanaldia Olakueta plazan, 22:00etan.

**Uztailak 12**
Busti zaitez! Esklerosi Anizkotzaren jaia igerilekuan.

**Uztailak 15**
Surf, skate eta snorkel. Sopelan. DBHko ikasleentzat

**Uztailak 17**
Zinema emanaldia Olakueta plazan, 22:00etan.

**Uztailak 22**
Sobron abentura. DBHko ikasleentzat
Nazioarteko Folklore Jaialdia. Mariel Errepublikako taldea. Olakueta frontoian, 20:00etan.

**Uztailak 23**
Nazioarteko Folklore Jaialdia. Peruko "Brisas del Titicaca". Olakueta frontoian, 20:00etan.

OHARRA
Lan eskaintza publikorako oinarriak udalaren web orrian zein bulegoetan eskuratu daitezke.

BERRIZKO UDALA

## ANTZERKIA

### DURANGO

›› **Uda Kalean Bizi: 'Caidos del cielo' (Ganso & Cia Clown**



**taldea),** uztailaren 4an, 21:30ean, Santa Ana plazan.

### ELORRIO

›› **Musikaire: 'Mea culpa' (Teatro Bambú-Honduras)**, uztailaren 5ean, 19:30ean, Arriola antzokiko Ateneoan.

## BESTEAK

### ABADIÑO

›› **Umeendako magia ikuskizuna,** uztailaren 3an, 17:30ean, Abadiñoko Gaztetxean.



### BERRIZ

›› **Berriz Bizikletari Elkarteak Frantziako Tourrera irteera antolatu dau: Montélimar-Mont Ventoux (20. etapa).** Uztailaren 24an irtengo dira eta 26an itzuli (berrizbizikletarielkartea@gmail.com / 660 712 138 ).

### DURANGO

›› **Euskal Harley,** uztailaren 3an, 4an eta 5ean, Harley eta Custom motorren kontzentrazinoa, Landako erakustazokan.

### ERMUA

›› **San Pelaio auzoko jaiak,** uztailaren 5a bitartean, eta, **Sallabente auzokoak**, uztailaren 6tik 12a arte.

## DANTZA

### DURANGO

›› **Uda Kalean Bizi: Itinerarte 09, Artes Escenicas latinoamericanas en gira: 'Paso Doble' Mirella Carbone,** uztailaren 4an, 22:30ean, San Agustin kulturgunean. Doan.



›› **Udako dantzaldiak: Trio Moby-Dick,** uztailaren 5ean, 19:00etatik 21:00etara, Ezkurdin (euria bada Azoka Plazan).

### ZORNOTZA

›› **Itinerarte 09, Artes Escenicas latinoamericanas en gira: 'Mirando al sur' (Costa Rica eta El Salvadorreko Dantza Konpainia Nazionalak),** uztailaren 5ean, 20:30ean, Zornotza Aretoan. Bazkideentzat doan.



## DEIAK

### DURANGO

›› **Odola emoteko aukera**, Eguenero, 16:30etik 21:00etara bitartean, Anbulatorio Zaharrean. Mugarra odol-emole elkarteak deituta.

›› **Azaleko Minbiziaren Prebentzinorako kanpaina,** uztailaren 10ean, 17:00etatik 20:00etara, Tabirako igerilekuetan.

›› **Inurri eskaut taldeak antolatuta udako kanpamendua,** uztailaren 20tik abuztuaren 2ra; 9 eta 12 urte bitarteko neska-mutilei zuzenduta. Azalpenak emoteko batzarra hilaren 9an, 19:30ean, taldearen egoitzan (Merkatu Plazako atzekaldean).

## ERAKUSKETA

### DURANGO

›› **'D-UR-ANGO. Historia de un río'. Carlos eta Ismael Iglesias.** Uztailean, Arte eta Historia Museoan. Udalak Arte Sorkuntza sustatzeko bekak babestuta (2007).

### ERMUA

›› **Margoak. Irene Iriondo.** Uztailaren 12a arte, Lobiano kulturgunean.

### ZORNOTZA

›› **Margoak. Chema Gutiérrez.** Uztailaren 12a arte, Zelaieta zentroan.

## IKASTAROAK

### DURANGALDEA

›› **Internet eta informatika.** Urkiola Landa Garapenerako Elkarteak eratuta, Dinamizatic Rural egitasmoaren eskutik eta Kzgunea zerbitzuaren laguntzagaz (688 613 537 / 94 620 36 11).

›› **Udako Euskara Ikastaroak: trinkoak, udako zein familiendako barnetegiak eta Xiberera.** Durangaldeko AEK euskaltegiek eratuta: Durango (94 681 73 49 / *abarrak@aek.org*), Elorrio (94 658 21 11 / *abizari@aek.org*), Zornotza (*zornotza@aek.org* / 946 673 43 70/), Berriz, Abadiño eta Zaldibar.

### DURANGO

›› **Spin bike, aquagym, tenis, dantzak, aerobik, patinajea…** Uztailean, Landako kiroldegian (www.durangokirolak.net / 94 603 00 31).

## JAIAK

### ATXONDO

### San Pedro jaiak

›› **Mendi martxa,** uztailaren 5ean, 08:30ean.

### ELORRIO

### Balendin Berrio-Otxoa

›› **'Klaudio Gallastegi eta erlijio gaiak' erakusketa filatelikoa,** uztailaren 4tik 12a arte, Iturri kultur etxean. Elorrioko Filatelia eta Numismatika elkarteak antolatuta.

›› **Burbuila jaia,** uztailaren 3an, 17:00etan, Gernikako Arbola plazan; eta, **Gasteiz Big Band**, 22:30ean, Musikaireren eskutik. Bertoko frontoian, 18:00etan, **pilota partiduak** —uztailaren 4an, 18:30ean—, Berrio-Otxoa pilotazale elkarteak eratuta.

›› **Meza nagusia,** uztailaren 4an, 12:00etan, Ricardo Blázquez, Bilboko Gotzain eta Espainiako Gotzainen Konferentziako presidente-ordea buru dela, Sortzez Garbiaren Basilikan. Horrezaz gain, 09:00etatik 11:00etara, orduro, eta, 19:00etan be izango da meza. Santa Anako Monastegian, **Dominiketan**, 08:30ean ospatuko da meza.

›› **Luntxa eta kale animazinoa,** uztailaren 4an, 13:30ean, Gernikako Arbola plazan. **Bidasoako erraldoiak eta buruhandiak**, 18:00etan. Santa Ana kaperan, 20:00etan, **Berrio-Otxoa abesbatzaren saioa**.

›› **Krofadiaren anai-arreba arteko**

**bazkaria,** uztailaren 4an, 14:30ean. Izena emon behar da (94 658 20 71 / 946 820 394 / 616 186 242).



›› **Txuma Murugarren,** uztailaren 4an, 22:30ean, Lourdesko ikastetxean, Musikaireren eskutik.

›› **Elorrioko ermiten ibilaldia,** uztailaren 5ean, 07:30ean, Gernikako Arbola plazan irtenda. Erdella mendizale taldeak eratuta.

## ZALDIBAR

### San Andres

›› **Donien-atxa altxatzea,** uztailaren 3an, 19:00etan, eta, jaiak iragartzeko **txapligua** Udaletxeko balkoitik. Jarraian, **kalejira Koral elkarteko trikitilari eta buruhandiekin**. Ordu berean, **triki-bertso-poteoa**.

›› **Odoloste-jana,** uztailaren 3an 20:00etan, Bekoetxe kalean, eta 21:00etan **herri-afaria,** Txosnagunean.

›› **Zerupeko zinemaldia,** uztailaren 3an, 22:30ean, eskoletako pilotalekuan, eta gauerdian **Amaiur taldeagaz erromeria**, Txosnagunean.

›› **3X3 Saskibaloi torneoa,** uztailaren 4an, 11:00etan, Euskal Herria etorbidean. Era berean, **Merkatu txikia** (11:00-13:00 / 17:30-19:30), fonotekan, eta **gazteluak, txirristak, ludoteka, kart zirkuitua, zezen mekanikoa eta aparra**, eskoletan (12:00-14:00 / 16:00-19:00).

›› **Txanogorritxu Rock taldea,** uztailaren 4an, 19:00etan, eskoletan, eta, 19:30ean, **Berrizko eta Zaldibarko dantza taldeen emonaldia**, Olazar pilotalekuan. **Kale animazinoa**, 22:00etan.

›› **Geiser taldeagaz girotutako dantzaldia,** uztailaren 4an, 23:00etan, Euskal Herria etorbidean. Txosnagunean, gauerdian, **kontzertua: Habeas Corpus + Vendetta.**



›› **Meza,** uztailaren 5ean, 11:30ean, San Andres parrokian. Era berean, **umeendako arku jolasak**, 12:00etatik 14:00etara, Jose Antonio Agirre parkean (euria bada Arku taldekoen galerian), eta, **eskulanen erakusketa**, 17:00etatik 20:00etara, Jubilatuen Etxean. **Merkatu txikia** (11:00-13:00 / 17:30-19:30), fonotekan.

›› **'Balkoitik Balkoira': I. Elortza, M. Lujanbio eta A. Agirre,** uztailaren 5ean, 18:30ean, Zaldua plazan. **Zirku ikuskizuna (Argote Anaiak),** 20:00etan Txosnagunean.

›› **Eskulan erakusketa,** uztailaren 7 eta 8an, 17:00etatik 20:00etara, Jubilatuen Etxean. Era berean, hilaren 7an, **olinpiadak**, 19:00etan, Jose Antonio Agirre parkean. **Herritarrendako afari-merienda**, 20:00etan, Olea kalean: solomoa (euro bat) eta sardinak (1,50 euro). **Luntxa**, 20:30ean, Txosnagunean.

›› **Kontzertua: Hesian + Blitztraktor,**



uztailaren 7an, 23:00etan, Txosnetan. **Joselu Anaiak**, 23:30ean, Euskal Herria etorbidean.

›› **Kalejira Euskal Herriko Trikitilari Gazteen XVI. Txapelketako irabazleekin,** uztailaren 8an, 11:00etan. **Meza**, 13:00etan, San Andres parrokian. Jarraian, **dantzariak**.

›› **Afizionatuen arteko pilota partiduak,** uztailaren 8an, 18:00etan, Olazar pilotalekuan.

›› **Rollers eta skaters erakustaldia,** uztailaren 8an, 19:00etan, eta **su artifizialak**, 23:00etan, Askorra kalean.

# LEHIAKETA

## DURANGO

›› **San Fausto jaiak iragartzeko kartel lehiaketa.** Azken eguna irailaren 5a, Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) 12:00ak artean. Saria: 1.000 euro.

## IURRETA

›› **Aita San Migel jaiak iragartzeko kartel lehiaketa.** Azken eguna abuztuaren 28a, Udaletxean edo Ibarretxe kultur etxean, 14:00ak arte. Saria: 480 euro.

# MUSIKA

## DURANGO

›› **Uda kalean bizi: Andrezj Olejnizak Quartet,** uztailaren 3an, 20:30ean, Etxezarreta parkean. Euria eginez gero San Agustin kulturgunean.



›› **'Hank-en oroimenez': The Hot Dogs + Suzy y Los Quatro + Cool Circus + Repugnancia Social + Los Paulinos + Artie Farmers + Straight Ahead,** uztailaren 3an, 22:00etan, Plateruenean.

›› **Valient Thorr + Sexty Sexers + Positiva,** uztailaren 4an, 21:30ean, Plateruenean.





Uztailaren 3an, 20:30ean

## POLONIAKO DOINUAK, ETXEZARRETA PARKEAN

Teté Monololiú lakoekin jardun dauen Andrzej Olejniczak Poloniako saxojotzailearen bueltan batutako laukotea dakar gaur *Uda kalean bizi* egitarauak. Xan Campos (pianoan), Reiner Elizarde "El Negron" (kontrabaxua) eta lago Fernandez (bateria) izango ditu lagun Olejniczakek. Agertokia, barriz, Arte eta Historia Museoaren aurrealdeko Etxezarreta parkea izango dabe. Nazinoarteko hainbat jaialditan parte hartu dau musikari taldeak; besteak beste, Kalisz International Jazz Festival-en. Euria eginez gero, San Agustingo hallean jardungo dabe.

# ZINEMA

## DURANGO

### Zugaza

**Ice Age 3. El origen de los dinosaurios**



*Zuzendaria: Carlos Saldanha*

barikua 3: 18:00 / 20:30
zapatua 4: 17:00 / 19:45 / 22:30
domeka 5: 17:00 / 19:45 / 22:30
astelehena 6: 18:00 / 20:30
martitzena 7: 20:00

## BOTIKAK

**Barikua, 3**
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
09:00-22:00
• Eguren, Cristina (Trañabarren 15 - Matiena)
**Zapatua, 4**
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Balenziaga / San Roma / (Durango)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Balenciaga (Berrio Otxoa 12 - Elorrio)*
**Domeka, 5**
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
09:00-22:00
• Eguren, Isabel (Torresolo 4 - Abadiño)
**Astelehena, 6**
09:00-09:00
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 -Durango)
**Martitzena, 7**
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
**Eguaztena, 8**
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
09:00-22:00
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
**Eguena, 9**
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)

## TELEFONO INTERESGARRIAK

**SOS Deiak** ..... **112**
**DYA** ..... **94 620 28 00**
**Gurutze Gorria** ..... **94 681 09 49**
**Osakidetza** ..... **94 600 72 00**
**Ertzaintza** ..... **94 466 93 00**
**Suhiltzaileak** ..... **112**

**GARRAIOAK**
Euskotren ..... 902 54 32 10
Durango ..... 94 681 02 32
Bizkaibus ..... 94 448 40 80
Pesa ..... 902 10 12 10
Continental Auto ..... 945 286 466

**TAXIAK**
Abadiño ..... 946 814 470
Matiena ..... 606 459 988
Durango Geltokia ..... 946 811 001
Goco Tour ..... 946 202 860
Tele Taxi ..... 944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..... 944 269 026
Elorrio Geltokia ..... 946 820 040
J.L. Uriarte ..... 670 402 002
I. Estebez ..... 670 678 273
M Galeano ..... 946 582 854
Iurreta ..... 946 201 565

**UDALAK**
Abadiño ..... 94 621 55 30
Atxondo ..... 94 682 10 09
Berriz ..... 94 682 45 84
Durango ..... 94 603 00 00
Elorrio ..... 94 658 27 12
Garai ..... 94 681 63 93
Iurreta ..... 94 620 12 00
Izurtza ..... 94 681 35 48
Mallabia ..... 943 17 14 61
Mañaria ..... 94 681 89 98
Otxandio ..... 945 45 00 20
Zaldibar ..... 94 682 70 16

**UDALTZAINGOA**
Abadiño ..... 94 621 55 33
Berriz ..... 94 682 40 36
Durango ..... 94 603 00 10
Elorrio ..... 94 682 02 18
Iurreta ..... 94 620 08 88

**BESTELAKOAK**
Arriola ..... 94 658 31 92
San Agustin ..... 94 603 00 21
Zornotza Aretoa ..... 94 630 01 68
Gazte informazioa ..... 94 603 00 30
Txanporta KE ..... 94 620 36 47
Errota KE ..... 94 466 94 16
Gorabide ..... 94 681 24 35
Alkoholiko Anonim. ..... 94 415 07 51
Nekazal bulegoa ..... 94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..... 94 681 74 86
Butanoa (UME) ..... 94 681 08 77
Araztegia ..... 94 620 28 00
Foru Ogasuna ..... 94 681 07 42
INEM Durango ..... 94 681 12 96
Gizarte Segurantza ..... 94 681 49 58
Epaitegiak ..... 94 603 00 51

**KIROLDEGIAK**
Igerilekua Astola ..... 94 620 29 29
Igerilekua Atxondo ..... 94 623 14 38
Berriz ..... 94 682 43 74
Durango (Landako) ..... 94 621 51 30
Durango (Tabira) ..... 94 621 51 50
Elorrio ..... 94 682 10 27
Zaldibar ..... 94 682 73 74

## EGURALDIA

17 / 29° **BARIKUA**

Termometroak gora egingo dau apur bat . Goizaldean lainotuta egongo da eta baleiteke euri apur bat egitea, baina segituan jasoko dau eta giro eguzkitsua nagusituko da. Arratsaldean bero-hodeiak garatuko dira.

14 / 24° **ZAPATUA**

Giro nahasia. Goizaldean euri apur bat egin leike, halan be, orokorrean zerua nahiko argi egongo da. Arratsaldean hodeiak ugaritu egingo dira eta baleiteke trumoiak jotzea be. Iparraldeko haizea ibiliko da.

12 / 22° **DOMEKA**

12 / 23° **ASTELEHENA**

15 / 23° **MARTITZENA**

# Jatetxe gida



## Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik. Pintxoak. Eguneko menua. Menu bereziak. Kartan, aukerako okelak txingarretan.



## Betixu Jatetxea

Iturburu, 9 Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita.Janariak jantokian: asteartetik igandera. Afariak jantokian: ostegunetik larunbatera.Razioak terrazan.



## Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.



## Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatura.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.



## Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



## Templete Jatetxea

Hotel Kurutziaga, Durango
Tel.: 94 620 08 64

Ospakizunak.
Karta.
Eguneko menua.
Menu berezia.



## Ganeko Etxe

Elizondo, z/g Berriz
Tel.: 94 682 40 27

Aintzinako baserri baten gerizpe gozoan, etxeko moduan sentitzeko.
Arrain errea kartan.
Eguneko menua: 8 euro.

Hemen agertu gura badozu,

DEITU

94 621 79 02

# KIROLAK >




Argazkia: Kepa Aginako

# Ikuskizuna abian da

Eguaztenean, Durangon hasi eta amaitu zen etaparekin, ekin zitzaion afizionatu mailako aurtengo Bizkaiko Birari. Oso etapa mugitua izan zen, eta sargoriak ez zituen txirrindulariak kikildu. Borrokari ekin aurretik, ordea, Durangoko kaleetan zehar irteera neutralizatua egin zuten antolatzaileek, 7-14 urteko gaztetxoak tropel-buruan jarrita. Hiru ordu eta erdi geroago, Esteban Parrak toki berean sentituko zuen poz eta atsegin bera nabari zitzaien gaztetxoei aurpegian.

Gogotsu ekin zioten Birari 19 taldeetako 113 txirrindulariek. Hainbat ihesaldi saiakera izan ziren hasieratik. Horietako batek bere fruitua eman, eta helmugara tropelaren aurretik iritsi ziren sei txirrindulari. Garate, Ryabkin, Torcler, Ferrari, Carrasco eta Parrak osatu zuten ihesaldian, azken hori nagusitu zen. Ondorioz, Birako liderraren maillota ere Supermercados Froizeko txirrindulariak jantzi zuen Durangoko podiumean.

**Garate lehen euskalduna**

Laugarren postuan, Jon Garate Bidelan-Kirolgiko txirrindularia izan zen lehen euskalduna; Cafés Baqué taldekoen artean, berriz, Miguel Angel Lucena helmugaratu zen aurrena 18. postuan.

Durangoko taldea honako sei txirrindulariekin ari da lehiatzen: Igor Romero, Daniel Domínguez, Andrés Sánchez, Víctor Martínez, Manuel Salmerón eta Miguel Angel Lucenarekin. Ruben Gorospe pozik agertu zen taldeak erakutsitako jarrerarekin, eta egunero gogoz saiatuko direla adierazi zuen. Atzo, Portugaleten hasi eta amaitu zen bigarren etapan, Esteban Parrak lidertzari eutsi zion.

> Ruben Gorospe: "Egunero saiatuko gara, gogoz, etapa bat irabazten"

Gaurko hirugarren etapa Galdakaon korrituko dute (116 kilometro). Bihar 14 kilometroko erlojupekoa dute Ugaon. Etziko azken etapak Bilbon du hasiera eta amaiera. ■ J.D.

24 Mallabiak eta Atxartek txapel bana

Trinketeko Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketan txapel bana irabazi dute Mallabiak eta Atxartek. Mallabiak Berrizko Oizperi irabazita, ezustekoa eman zuen.

25 Oihana Kortazarri elkarrizketa

25 urteko elgetarrak Anboto Kilometro Bertikala irabazi du oraintsu. Horrez gainera, Euskadiko Selekzioko kide da eta Espainiako Txapeldun geratu da Castellón.

# Martin I.ak eta Elorriagak ezusteko handia eman dute

## Trinketeko kluben artekoan iaz irabazitako txapela berritzeko faborito nagusi ziren Gonzalez eta Larrazabal menderatu dituzte



Gazte mailan Arabiourrutia eta Aspuru abadiñarrek jantzi zuten txapela. Kepa Aginako

Finalak eman du txapelketa osoko ezustekorik handiena trinketeko kluben arteko txapelketan. Iazko txapeldunak eta txapela berritzeko faborito nagusiak –Oizpeko Mikel Gonzalez eta Ismael Larrazabal– menderatu zituen Mallabia Pilota Eskolako bikoteak.

Tornosolon jokatutako finalean Martin I.ak eta Elorriagak 40-29 menderatu zituzten Gonzalez eta Larrazabal. Irabazleek maila bikaina eman zuten. Galtzaileak, berriz, euren mailatik oso behera aritu ziren. Gonzalez ezkutatuta ibili zen partidu osoan, eta Larrazabalek txarto jokatu zuen.

Gazte mailan Abadiñoko Atxartek txapela soineratu zuen Txumuxueta menderatuta. Aitor Arabiourrutiak eta Asier Aspuruk partidu serioa jokatu zuten.

> Gonzalez eta Larrazabal Oizpeko bikotea bere mailatik behera aritu zen

> Gazte mailan txapela jantzi zuen Aspuru eta Arabiourrutia bikote abadiñarrak

### Ezusteko gutxi

Gainontzeko finaletan ez zen ezustekorik izan. Eskuz banaka Akarregiko Lier Gandiagak Joko Alaiko Etxeberria menderatu zuen; beste hainbeste egin zuen Hernanik Mundarrorekin binaka zein kadete mailan.

Gomazko paletan, emakumeetan Hernanik eta gizonetan Ramuntxo I.ak irabazi zuten, aurreikuspenak betez. Larruzko paletan jaun eta jabe izan ziren Amaya kadeteetan eta Adurtza nagusietan.

Azkenik, xareari dagokionez, Ametsa 1 pilota eskolako bikoteak jantzi zuen txapela.

## Adituarentxokoa



**Gotzon Gomez**
• Errugbi entrenatzailea

### Giza faktorea

Ez da ohikoena kirol arloa lantzen dauen zutabean literaturari edo liburuei erreferentzia egitea, baina honako honetan John Carlin kazetari ezagunaren liburuaren aipamena egingo dot. Liburuak “The human factor” izenburua dauka.

Bertan, Johnek Nelson Mandelari buruz hainbat kontu eta bitxikeria azaltzen deuskuz, kartzelan emondako urte luzeek askorako emoten dabe-eta, baina aipagarriena litzake zelan Mandelak Hegoafrikako errugbi jokalariak erakarri zituen (sasoi haretan jokalari gehienak zuriak zirela eta herritar gehienentzat bakarrik zurientzako kirola zela jakinik), eta, batez be, Francois Pienaar kapitainaren laguntza eta konplizitatea.

Eurekin batera hainbat urtean “apartheid” delakoagaitik zatituta zegoen herrialdea kirolaren inguruan batzea lortu eban. Errugbiaren bitartez, 1995. urtean euren herrialdean antolatutako Munduko Txapelketari esker, Mandelak berezkoa zuen karisma eta abilezia erabilita, arrisku larrian zegoen gizartea bideratzea lortu eban. Zelan? Hegoafrikar guztiak errugbi taldearen alde eginez, eta bide batez gizartea elkartuz. Finalean Zelanda Berriaren aurka lortutako garaipena horren lekuko dogu.

Liburuak hausnarketarako aukera handia emoten dau, eta beharbada kirola zuzentzen dabenek ikasteko hainbat gauza izango leukie. Nik oraingoz zutabe hau jarraitzen dozuenoi gomendatzen deutsuet liburua udan irakurtzeko eta gozatzeko. Ondo ibili eta hurrengora arte.

# Aitor Zabaletak irabazi du Urkiolako Igoera

## Turismoen adarrean Jose Ignacio Erdoiza “Lebeiti” nagusitu zen, espero zen legez

Aitor Zabaletak irabazi zuen, zapatuan, Urkiolako XIII. Igoera. Lola BMW barquetaren bolantean 1.41,444-ko denbora osatu zuen bergarararrak.

Mendiko Euskal Txapelketako hirugarren proba izan zen Urkiolan jokatu zutena. Zabaletak txanda guztietan irabazi zuen. Aitor Erro geratu zen bigarren, lau segundora, eta Alberto Alonso hirugarren, hamar segundora. Horien atzetik Rubén Nogueiras, Santi Guitart eta Lebeiti geratu ziren. Lebeitik turismoen adarreko lehia irabazi zuen. Nabarmentzekoa da Urkiolako maldetan batu zen jendetza. Bide izkina guztiak zalez beteta egon ziren.

> Aitor Erro bigarren geratu zen eta Alberto Alonso hirugarren



Egoitz Sarrionandia irudian, Durangalde Racing elkartekoa. I.G.

# Urrejola eta Ocerin txapeldun kadeteetan

## Bizkaiko II. Mailako Txapelketa irabazi dute finalean Zeanuri 22-18 menderatu ondoren

Joan zen barikuan Bizkaiko II Mailako Pilota Txapelketako finala jokatu eta irabazi zuten Ander Ocerin zornotzarrak eta Ibon Urrejola otxandiarrak, kadete mailan. 22-18 menderatu zuten Zeanuriko bikotea. Santurtzin jokatu zen final estuan, gureak uneoro aurretik joan ziren markagailuan. Urrejola seguru ibili zen atzean eta Ocerinek dotore jokatu zuen aurrean.

Biek elkarrekin bikote sendoa osatzen dute. Izan ere, honako hau ez da elkarrekin irabazten duten lehen saria; otsailean XXV. Arratia-Nervioi Pilota Txapelketa irabazi zuten, Zornotzan jokatutako finalean. 22-3 menderatu zuten Lemoa.

> Otsailean Arratia-Nervioi Txapelketa ere irabazi zuten elkarrekin

# Julian Retegiren Master Jaiko akzioak salgai

Master Jai enpresak administrazio kontseiluko batzarra egin du oraintsu. Jakinarazi dutenaren arabera, batzar horretan enpresako hiru bazkidek euren akzioak saltzeko eskaera egin dute: Julian Retegi, Agustin Rekalde eta Juan Amezua dira hiru bazkide horiek.

Enpresako gainontzeko bazkideek hiru horiek salmentan jarriko dituzten akzioak erosteko asmoa erakutsi dute. Era berean, bost lagunek enpresan sartzeko interesa erakutsi dute, batzarrean aipatu dutenez, eta prest daude Master Jai enpresako akzio batzuk erosteko.

# “Kilometro bertikalean ez dago indarrak gorde eta geroko izterik”

**Mendiz inguratutako herri batekoa izanda, errepidetik mendi lasterketetarako jauzia egitea denpora kontua zen. Harrezkero, gora eta gora egin dau. Euskal Selekzinoko kide da, eta Espainiako Txapelketa eta Anboto Kilometro Bertikala irabazi ditu.**

• **Izen-abizenak:** Oihana Kortazar
• **Nongoa:** Elgetarra
• **Adina:** 25 urte
• **Anboto Kilometro Bertikala irabazi dau. Oraintsu, Espainiako txapeldun izan da Castellón. Uztailaren 17tik 19ra Europako Txapelketan parte hartuko dau, Italian.**

**Kilometro bertikal batean parte hartu dozun lehenengo aldia da. Zelan bizi izan dozu?**
Diferentea da, ez dago suabe hasi eta indarrak azkenerako izterik. Lehenengo 800 metroak erritmoa hartzeko erabili leitekez, baina handik gora erritmo konstantea eroan behar da oinez. Gainera, Izaskun Zubizarretagaz topo egiten neban lehen aldia zen (bigarren egin eban). Iraupen luzeko eskia egiten dau, eta beti ondo prestatuta dago. Kezka hori be baneukan.

**Itxaroten zenduen lehenengoz parte hartu eta irabaztea?**
Baneukan konfiantza nire buruagan, baina aurreko astean Espainiako Txapelketa jokatzetik nentorren, eta asko kostatu jatan errekuperatzea. Egun batean bakarrik egin neban korrika. Baina spinning klaseak emoten ditut, eta horrek be laguntzen deust. Halan be, deskantsuak on egin eustan, eta hein handian horregaitik heldu nintzen sasoiko Anboto Kilometro Bertikalera.

**Mendi Lasterkarien Euskal Selekzinoko kide zara. Aldaketa handia izan da?**
Onartu edo ez, duda egin neban. Deia jasotzea pozgarria izan zen, jakina, baina Euskal Selekzinoko kide izateak erantzukizuna eskatzen dau. Hemengoetara ez eze kanpoko lasterketetara joan behar dozu, Kopa batean parte hartzera konprometitzen zara… Baina 25 urte daukadaz, eta gerora be izango dot neure kontura eta neuk gustuko ditudan lasterketetan bakarrik parte hartzeko denpora.

**Uztailaren 17tik 19rako asteburuan Europako Txapelketa jokatuko dozu Italian. Zer esperantza daukazu?**
Txapelketa lasterketa bitan zatitzen da. Hilaren 17koa kilometro bertikal bat da eta 19koa 22 kilometroko lasterketa bat. Euskadikoak ezin dau parte hartu eta Espainiako Selekzinoagaz noaz. Munduko onenak batuko dira: Emanuela Brizio, Rosa Madureira… Podiuma zapaldu seguru ezetz, baina daukadan dena emongo dot.

> “Espainiako Txapelketa irabazi izana sorpresa izan zen niretzako”

> “Erantzukizuna dakar Euskadiko Selekzinoagaz lehiatzeak”


Europako Txapelketan parte hartuko du uztailaren 17tik 19ra.

**Espainiako txapeldun legez joango zara.**
Bai, Castellón irabazi dot oraintsu. Hain zuzen be, horrexegaitik zuzenean sailkatu naz Europako Txapelketarako. Lasterketa luzea zen, eta ni laburragoetan hobeto moldatzen naz, baina oso ondo aurkitu nintzen. Etorkizunari begira hortxe hobetu behar dot: indarrak neurtzen eta esfortzua kontrolatzen. Bestela, bero handia egiten dauen toki bat zenez, nahiko urduri nengoen. Goizeko 06:00etan hasi zen lasterketa. Hasierako kilometroa asfaltoan zenez eta ni lehendik be asfaltoan ibilitakoa nazenez, tartea zabaldu neban, eta aurretik ibili nintzen lasterketa osoan. Hamar minutu atera neutsazen bigarrenari.

**Tarte handia atera zeuntsan.**
Dena esan behar bada, nire atzetik hiru minutura zegozen emakume bik lasterketa itzi eben. Bata birritan jausi zen. Baina lasterketak holakoxeak dira. Niretzako be sorpresa izan zen.

**Urte askoan zabilz mendi lasterketetan parte hartzen?**
Ez, igazko maiatzean hasi nintzen neure kontura. Aurten apirilean irabazi neban lasterketa baten ondorioz Euskadiko Selekzinotik deitu eusten, eta harrezkero hor nabil.

**Eta aurretik ez zenduen lasterketarik korritzen?**
Bai. Denetarik egin dot. Umetan txirrindulari ibili nintzen. Ondoren, Elorrioko Erdella mendizale taldeagaz Pirinioetara-eta joan izan naz. Gero duatloietan hasi nintzen. Duatloien sasoia amaituta triatloiena hasten da, eta, igerian ez nazenez espezialista, mendi lasterketei ekin neutsen. Sarako eta Berako lasterketak irabazi ondoren deitu eusten selekzinotik. ■ J.D.

## Ussia, Solar eta Lastra bikain atletismoan

Pistako Atletismoko Euskadiko Txapelketa jokatu zen, joan zen asteburuan, Durangon. Bidezabaleko atletei dagokienez, aipatzekoa da Geraxe Ussiaren eta Belit Solarren lana. Irabazi egin zuten 400 eta 800 metroetan. Biak lesio batetik bueltan zetozen. Ussiak ezin izan zuen 15 egunetan ondo entrenatu, eta Solar otsailetik lesionatuta zegoen. Biek kalitate handiko atletak direla erakutsi zuten. Azpimarratzekoa da Arrate Lastraren lana ere, pertikan; irabazi egin zuen 3,51eko jauziarekin.

Natalia Ourmakaeva eta Alicia Lagartos bigarren geratu ziren, pisu eta jabalina jaurtiketan, hurrenez hurren. Alicia Varas laugarren geratu zen 100 eta 200 metroetan; Amaia Gabiñak seigarren postua lortu zuen 100 metroetan eta Ussiak zazpigarrena 200etan. Garazi Larrazkueta bigarrena izan zen 100 metroko hesi-lasterketan eta Aitziber Gomez bosgarrena. Alexandra González hirugarren sailkatu zen 3.000ko hesi-lasterketan.

Gizonetan Imanol Marrokinek hirugarren amaitu zituen 5.000 metroak.

## Pilota finalak erabakita daude Zaldibarren

Durangaldeko II. Pilota Txapelketako finalak uztailaren 12an, 16:30ean hasita, Zaldibarren jokatuko dira. Umetxoen mailan Mallabiko Hdidou eta Gisasolak Mañariko Elorria eta Zenarruzabeitiaren kontra jokatuko dute. Umeen mailako partidu bietan eskualdeko bikote bana dugu: Mallabiko Onintz eta Gartxot lehenengoan, Zaldibarko Iparragirre eta Pradera bigarrenean.

Gaztetxoetan, Zalduegi eta Elordi mallabitarrek Markinaren kontra jokatuko dute; ondoren, Zaldibarko Bereinkua-Pradera eta Atxondoko Diez-Zuazubizkar ariko dira. Kadeteetan Mallabiko Pradera-Garitagoitia eta Atxondoko Martinez-Joseba lehiatuko dira.

## Giro ederrean jokatu zituzten Oizpeko finalak

Pilotazaleek ez zuten hutsik egin Oizpe Pilota Txapelketako finaletara, eta giro ederrean jokatu ziren sei mailetako finalak. Nagusietan Albizuri II.a berriztarrak irabazi zuen eta gazteetan Arrieta markinarrak. Haurren mailan Bereinkua eta Uribelarrea iurretarrek irabazi zuten. Haurren mailan Mallabira eraman zuten txapela Araiztegik eta Gisasolak. Benjamin A mailan Albizu eta Garrok irabazi zuten eta B mailan Zurituriza eta Pujanak (Durango).

## Gorostia eta Nerea Aranburu omendu zituzten

Berrizko Udalak areto-futbolean dabiltzan Gorostia A-ko neskak eta Nerea Aranburu korrikalaria omendu zituen, joan zen barikuan. Jabier Azpitarte alkateak eta Puri Perez eta Karmen Amezua zinegotziek parte hartu zuten ekitaldian.

Gorostia A-k liga irabazi du kadete-gazte mailan, partidu bakar bat galdu gabe. Aranburuk neguko kros denboraldia irabazi zuen lehenengo eta udako pistakoa ondoren.


Udaletxean egin zuten omenaldi ekitaldia barikuan.

## BTTko onenak etzi Berrizen

Espainiako Superprestigio Massi Openeko seigarren eta azken proba Berrizen jokatuko da etzi. 200 txirrindularik parte hartuko dute. Gizonetan zein emakumeetan elite mailako txapeldunak erabakita daude, baina gainontzeko maila guztietako irabazleak Berrizen jakingo ditugu.

Aurten zirkuitua aldatu dute. Sei kilometro dituen ibilbidea belodromo inguruan egokitu dute. Oro har, iazkoa baino teknikoagoa da.

AMALURRA> Publierreportajea





# Urkiolako Lagunak: inguru hau atsegin dabenen bilgunea

Parke Naturalean antolatzen dituteen ekintzen informazino zuzena izaten dabe kideek; azken hilabetean be ekintza askotan parte hartzeko aukera izan dabe Urkiolako Lagunek

Urkiolako Lagunak taldea 2000. urtean jarri eben martxan. Gaur egun, bederatzi urte pasatu eta gero, 888 pertsona eta 140 taldek osatzen dabe, bere izaera zabala erakutsiz. Talde horretako kideek hainbat ekintzatan parte hartzeko aukera izan ohi dabe; azken asteetan be naturagaz hartu-emonetan ibili dira Urkiolako Parke Natualaren inguruetan.

Urkiolako Lagunak taldean, Urkiola ingurua atsegin daben eta interesatzen jaken pertsonak batzen dira. Pertsona horreek, urtean zehar Toki-Alai interpretazino zentrotik antolatzen diren ekintzen barri jasotzen dabe, eskutitzez; irteera eta antzekoetan, berez, edonork parte hartu leike, baina taldeko kideak dira informazinoa lehenengo eta zuzenean jasotzen dabenak. Horretaz gainera, Urkiolari buruzko aldizkaria be etxera ailegatzen jake urtean birritan.

Esan dogun moduan, Toki-Alai interpretazino zentrotik urtean zehar antolatzen diren ekintzak ugariak eta askotarikoak dira, baina beti be Urkiola ingurua oinarri moduan hartuz: mendiko ibilbide gidatuak, kobazuloetara irteerak, habi-kutxen garbiketa eta jarraipena, hegaztiei eraztunak jartzea, argazki rallya...

## Azken asteetakoa

Maiatz eta ekaineko asteetan aurrera jarraitu dau Toki-Alaiko eskaintzak, eta irteerak, txoriei eraztunak jartzea zein astronomia izan ditue eskura.

Maiatzaren 23an, Aranzadi zientzia elkarteko kide batek txoriei eraztunak nola jartzen jakezen azaldu eban. 23 lagun elkartu ziren, eta txoriak harrapatzeko sareak zelan ipintzen diren ikusi eben parte-hartzaileek. Txoriei eraztuna jartzeaz gainera, zein neurketa mota egiten jaken be azaldu eben, eurei buruz gehiago ikasteko.

Maiatzaren 30ean, arratsaldez, 50 lagun inguru elkartu ziren Astronomiari buruz zeozer ikasteko asmoz. Durangoko Izarra Astronomia Elkarteko kideak izan ziren bertan, eta planeta, izar eta konstelazinoei buruz berba egiteaz aparte, hainbat material eroan eben jenteak ikusteko: planeten ezaugarriak nahiz konstelazinoen izenak ikasteko diskoak, beste planeta batzuetan zein pisu izango geunken jakiteko baskula bereziak, eurek eraikitako teleskopioak... Gaueko behaketagaz amaitu zen eguna astronomiazale horreentzat.

## Irteerak

Maiatzaren 13an, 13 lagun batu ziren Mañariko plazan, Urkiolako azken hartza hil eben lekura joateko asmoz, baina eguraldiaren iragarpena ez zen ona, eta beste ibilbide bat egin behar izan eben bertaratu zirenek. Ez zen zorterik izan maiatzeko irteeran, baina bai ekainekoan. Hilaren 7an, Mañariko Marko eta Askondo kobazuloak bisitatu zitueen Urkiolako 20 lagunek. GEMA espeleologia taldeko kideei esker, goiz guztiko ekintza horretan hainbat geologia-formazino behatzeko aukera izan zen: estalaktikak, estalagmitak, banderak eta zutabeak, esaterako.

Urkiolako Lagunak taldean izena emoteko, aldizkariko azken atala bete edo Toki-Alai zentrora deitu behar da: 94 681 41 55.

**Gaur egun, bederatzi urte eta gero, 888 pertsonak eta 140 taldek osatzen dabe Urkiolako Lagunak taldea**

**Taldeko kideak dira ekintzen gaineko informazinoa lehenengo eta zuzenean jasotzen dabenak**


BAUTISTA ALTZARIAK ETA DEKORAZIOA-REN
ALTZARIGILE IZARRAK PROMOZIOA
altzarigile ugariko aukera
prestatu dugu zeure eskura
jartzeko PREZIO IZARRETAN
eta zure erosketagatik taloi bat
jasoko duzu opari gainera
gure dendetako edozein
produktugatik trukatzeko
edo bere prezioa
zuzenean merketzeko
ALTZARIGILE IZARRAK PROMOZIOA
BAUTISTA
SUKALDEAK - BAINUGELAK
EGONGELAK - LOGELAK
HAURRENTZAKO LOGELAK - TAPIZAK
GORTINAK - STOREAK - ALFONBRAK
OHE-JANTZIAK - ARGIZTATZEA
DOAKO FINANTZIAZIOA
12 HILEAN
PROIEKTUAK ETA AURREKONTUAK
KOMPROMISORIK GABE
BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LLODIO - ABADIÑO
Urbitarte poligonoa, 4 partzela, 2 pabilioia ABADIÑO (Eroskiren ondoan)
BEZEORENTZAKO ARRETA-ZERBITZUA: 94 672 77 00

# IRAGARKIAK

**LANA**
-Eskaerak
-Eskaintzak
**ETXEBIZITZAK**
-Salgai
-Errentan eman
-Errentan hartu
-Pisua konpartitu
**IRAKASKUNTZA**
-Klaseak hartu
-Klaseak eman
**MOTORRA**
-Salgai
-Erosi
**LOKALAK**
-Errentan eman
-Errentan hartu
**ANIMALIAK**
-Salgai
-Erosi
**BESTEAK**
-Berba egin
-Salgai







Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak ostiral horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

**DOAKO IRAGARKIAK (partikularrak):**
- Bidali ANB (tartea) eta zure iragarkia 7789 zenbakira. Mezu bakoitza: 1,2 euro + BEZ
- Deitu 94 621 79 02 telefonora

**ORDAINDUTAKO IRAGARKIAK (ez profesionalak):** Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94 621 79 02 telefonoan.

**OHARRA**
Eroski Movilek ez du zenbaki laburretara mezuak bidaltzeko zerbitzua eskaintzen. ANBOTOk, kasu horretan, ez dauka inongo erantzukizunik.

## LANA

### ESKAERAK

**Durango.** Etxe garbiketarako eta umeak zaintzeko emakume bat behar da. Tel.: 657 772 050

**Durangaldea.** Banaketa enpresa batek banatzaileak behar ditu Durangaldean. Astean sei egunetan lan egiteko, asteartetik igandera. Bi aste lan eta bat jai. Goizeko 05:00etatik 08:00etara. Derrigorra da autoa izatea. Tel.: 943 30 43 41
E-mail: lanpoltsa@etxeraino.net

ASEBI erakundeak bolondresak behar ditu. Parte hartzea eta laguntzea gustuko duenak izena emon dezala. Tel.: 94 447 33 97 / 685 782 365.
E-mail: asebi@telefonica.net.
Sancho Azpeitia kalea, 2 behea, 48015 Bilbo.

**Berriz.** Informatika-aplikazioen programatzailea behar da, gestio aplikazioen inguruko ardura hartzeko. Derrigorra da arcgis eta .net-en esperientzia izatea. Lanaldi osoan eta froga epean, luzatzeko aukerarekin. Berehala hasteko. Erreferentzia: 3.117. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Durango.** Ileapaintzailea behar da, ohiko funtzioetarako. Derrigorra da arloan formazioa izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 3.293. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Durango**. Aseguru-merkataria behar da. Derrigorra da esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Lan egun erdia edo osoa. Erreferentzia: 3.988. SARTU.
Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Zornotza.** Kamioilaria behar da harrobietako trailer bat Bizkaian zehar gidatzeko. Derrigorra da E karneta edukitzea eta esperientzia izatea trailer gidari moduan, baita inguruan bizitzea be. 6 hilabete ingururako kontratua. Erreferentzia: 4.767. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Zornotza.** Elektrikaria behar da mantenu eta instalazioetarako. Derrigorra da Lanbide Heziketa II izatea, kotxea izatea, langabezian egotea eta Durangaldean bizitzea. Egun osoz lan egiteko: 8:00-13:00 eta 14:30-17:30. Hiru hilabeterako kontratua, luzatzeko aukerarekin. Berehala lanean hasteko. Erreferentzia: 5.005. SARTU.
Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

**Durango.** Gizarte langilea behar da, zerbitzuak eta plantilla koordinatzeko. Derrigorra da Gizarte Lana edo Gizarte Hezkuntzako diplomatura izatea, Excel erabiltzen jakitea, euskara jakitea, kotxea izatea eta Durangaldean bizitzea. Egun osoz lan egiteko: 08:00-15:00 egunero eta 15:30-18:00 egun baten. Uztailaren 15ean hasteko. Larrialdi kasuetarako, mugikorra gainean izateko baldintza. Erreferentzia: 5.007. SARTU.
Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

### ESKAINTZAK

Emakume arduratsu, serio eta esperientziadunak lana bilatzen du ume eta nagusien zaintzan, baita tabernen garbiketan ere. Kanpotik etorrita edo interina legez, gauetan zein asteburutan. Tel.: 676 196 608

Emakume arduratsua eta esperientziaduna nagusiak zaintzeko edo etxeak garbitzeko prest dago. Erreferentzia onekin. Orduka, egun erdiz, gauez zein asteburutan.
Tel.: 606 193 675

Elorrioko neska euskalduna umeak zaintzeko prest. Tel.: 653 728 165

Neska gazte euskalduna udan umeak zaintzeko prest.
Tel.: 695 706 227

Igeltsero moduan, tabernan eta garbiketan lan egiteko prest nago.
Tel.: 679 070 337

Arotz edo pintore laguntzaile moduan lan egingo nuke. Garbiketan zein tabernan be aritu naiteke, eta igeltsero lanetarako ere prest nago.
Tel.: 696 356 551

Neska euskalduna umeak zein nagusiak zaintzeko, garbiketarako, tabernan zein dendan lan egiteko prest dago. Kotxearekin. Edozein egun eta ordutan. Tel.: 665 725 262

Irailetik hasita eta arratsaldez, 16.00etatik aurrera, Elorrion ume txikiren bat zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat.
Tel.: 635 704 512.

Neska etxe garbiketarako eta ume zein nagusiak zaintzeko prest dago. Orduka edota kanpotik etorrita lan egingo nuke.
Tel.: 669 609 829

Garbiketarako eta umeak nahiz nagusiak zaintzeko prest nago. Egun erdiz edo osoz egingo nuke lan, 24 orduz zein kanpotik etorrita.
Tel.: 638 885 209

Neska arduratsua nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Italieraz ere badakit.
Tel.: 676 196 608

Neska abadiñarra garbitzaile edo ume zaintzaile lan egiteko prest. Goizez zein arratsaldez.
Tel.: 689 024 647

Argazkilari esperientziaduna ezkontza eta bestelako ekitaldietan argazkiak egiteko prest dago. Prezio onean.
Tel.: 680 592 903

## ETXEBIZITZAK

### SALGAI

**Elorrio.** Baserria salgai, bi etxebizitza eta txokoa ditu. Etxebizitza bat guztiz berriztuta, bestea erdi berriztuta. Txabola eta 6.000 m2-ko lursaila.
Tel.: 677 502 803

**Elorrio**.50m2-ko apartamentu-atiko berria salgai. Logela ,sukalde-egongela eta igogailua. Oso polita.
Tel.: 606 043 835

Pisua salgai Errioxan, Casalareinan. 20 m2-ko txokoarekin.
Tel.: 615 789 859

### ERRENTAN EMAN

**Durango.** Pisu berria alokagai. Logela bat altzariekin. Argitsua eta berriztatuta. Alde zaharretik gertu, baina eremu lasaiean. Urte baterako alokagai, 450 eurotan.
Tel.: 695 702 461

Etxe berria alokagai Conilen. 2 logela, komuna, sukaldea, jardina eta barbakoa. Zonalde oso lasaia.
Tel.: 600 596 538.
Argazkiak ikusgai:
www.flickr.com/photos/lacasitazul/show

**Durango.** Pisua alokagai da Ermodo kalean. 3 logela eta terraza ditu.
Tel.: 94 681 05 97

**Durango.** Etxebizitza alokagai. Hiru logela, berogailua eta igogailua. Oso eguzkitsua da eta ikuspegi ederrak ditu.
Tel.: 638 125 838

**Landak.** Vieux Boucau.Le Boucanier. Apartamentua alokagai udarako. Igerilekua, hondartza, lasaitasuna..
Tel.: 656 759 537 (Joseba)

**Zaldibar.** Logela alokagai.
Tel.: 665 732 787

### ERRENTAN HARTU

**Durango.** Semeagaz konpartitzeko alokairuko pisu baten bila nabil.
Tel.: 605 749 443

**Durangaldea.** Baserri bat behar da alokatzeko Elorrio edo Atxondon.
Tel.: 699 846 123

## MOTORRA

### SALGAI

**Ford Galaxy Trend** 1.9 tdi salgai. 130 zaldi, amortiguadore berriak, 17ko llantak, margotu berria, gris metalizatua. Oso egoera onean. 14.000 euro.
Tel.: 655 712 105

**Suzuki Marauder 250** salgai.11.000 km. 1.800 euro (2 kasko opari moduan). Tel.: 628 890 707

**Autokarabana** salgai. 6 pertsonentzako lekua dauka. Tel.: 615 724 876

## LOKALAK

### ERRENTAN EMAN

**Durango.** Trastelekua alokagai. 15 m2 ditu eta merkea da. Tel.: 629 415 416

### ERRENTAN HARTU

Autokarabana gordetzeko garajea erosi edo alokatu nahi dut. 3 metroko altuera eta 6 metroko luzera behar du.
Tel.: 656 785 827

## ANIMALIAK

### SALGAI

**Kuiak** salgai. Mota askotakoak eta hainbat tamainatakoak. 10 eurotan.
Tel.: 663 482 791 (deitu 20:00etatik 22:00etara)

**Txakurkumeak** salgai. Espanier Breton arrazakoak. Ekainaren 1ean jaiotakoak. Tel.: 94 658 33 53

**Behor beltza** salgai. Izaera onekoa da aulkirako. Iurretan. Prezio merkea.
Tel.: 686 915 282

### OPARI

**Coker arrazako txakurkume jaioberriak** oparitzen ditut. 6 dauzkat. Oso politak eta atseginak dira.
Tel.: 615 972 746

**Bost katakume** oparitzen ditut Mallabian. oso politak.
Tel.: 651 705 736

## BESTEAK

### SALGAI

**Neopreno (SAILFISH VIBRANT)** berri bat salgai, gizonezkoen "S" neurrikoa. Gama altukoa. Prezioa: 325 euro
Tel.: 665 714 783

**Trikitixa** salgai. Urte bat baino ez dauka.1.400 euro.
Tel.: 686 321 060 (Itxaso)

**Bosch silver** edition aire girotua salgai. Aire hotza, beroa eta hezetasun aukerak. Informazioa eskatu uptheball@hotmail.com helbidean.

**Akordeoia.** Paolo Soprani 96 baxua. Tel.: 665 738 563. (Joseba).

**Soinu mahaia** salgai. ECLER MAC 2-4 markakoa. 100 euro.
Tel.: 94 682 08 30

**Bilbao BBK Live-erako 3 egunetako 4 bono** salgai. 120 euro bakoitza.
Tel.: 660 085 720

**Lur-saila.** 42.000 m2-ko basoa salgai. Oriol mendiaren azpian. Tel.: 600 313 200

**Lur-saila.** 13.500 m2ko lur-saila salgai Zaldibarren. Eraikitzeko aukerarekin. Prezio onean. Tel.: 629 419 411

**Sutarako pago eta haritz egurra.** Edozein neurritan salgai. Etxerako bidalketa.Tel.: 644 194 722

**Oilagorretarako eskopeta.** H Zabala-Vencedor modeloko paralela. 60 zm-ko kainoia. Eskuma estriatua eta ezkerra lisua. Berri-berria. Tel.: 622 266 911

**Lur-saila.** Zornotzako Larrean lur-saila salgai. Laua, uragaz eta bideagaz. Argindarra bertan. Oso polita, errekagaz. Tel.: 94 622 51 75

**Mendiko bizikleta.** 2008ko dirt jumpeko scott voltage yz. Oso egoera onean (behin erabilia), 475 eurotan. Tel.: 655 706 713

**Mendiko bizikleta.** 2008ko scott gambler fr10 (DH/free ride). Oso egoera onean (goitik behera berrikusia). 2.375 eurotan. Tel.: 655 706 713

**Trikitixa.** 1.000 eurotan. Tel.: 687 281 981 (Iñaki)

## EROSI

**Basoa.** Lur zati bat erosiko nuke Durangon edo Durango aldean. Ez zait axola txikia izatea edota leku ez oso erosoan egotea. Tel.: 676 685 052 eta 660 369 973

## BEREZIAK

Ekitaldi ahaztezin bat izan nahi baduzu girotu ezazu zeure gustuko musikarekin. Biotxe Durangoko biolontxelo eta biolin bikotea da. Orkestretan jotzen hainbat urte egin eta gero, erreperto-rio zabala dugu aukeran ezkontza erlijioso zein zibil, inaugurazio eta ekitaldiak girotzeko. Durangarrak izan arren, Euskadi osoan zehar mugitu gaitezke.e-posta:biotxe@hotmail.com Tel.: 635 746 176 (Maialen)

45-50 adin tarteko lagun bila nabil, arratsaldero ibilaldiak egiteko txakurrarekin eta abar. Tel.: 636 847 262

Poltsikoko egutegiak badituzu, edo bildumak egiten badituzu deitu zenbaki honetara. Tel.: 665 718 061

Tintinen "urre beltzaren lurraldean" komikia erosiko nuke euskaraz. Tel.: 625 92 10 57

Garagardo txapen bilduma egiten dut.Norbait trukerako interesatuta baldin badago deitu zenbaki honetara. Tel.: 695 452 194

**Atxondo.** Karabanak gordetzeko zerbitzua. 900 m2-ko lokala. Tel.: 618 608 908

Autoa konpartitzen dut Gasteiztik Otxandiora joateko, astelehenetik ostegunera. 09:30etik aurrera. Tel.: 945 46 14 67 edo 615 723 077

# INMOBILIARIAK

AGENCIA INMOBILIARIA Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 - bajo - Telf. y Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO / Bizkaia

### ETXEBIZITZA BERRIAK

- Andra-Mari: Apartamentu berriak eraikitzen.
- Zaldibar: Etxebizitzak eraikitzen.
- Abadiño: Txalet bifamiliarra lur eremuarekin.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin.
- Atxondo: Baserria salgai.
- Erretentxu: Adosatua eraikitzen.
- Erretentxu: Txalet bifamiliarra eraikitzen.
- Otxandion: Adosatuak. Eraikuntza berriak.
- Otxandion: Familia bakarreko etxea lursailarekin.

### ETXEBIZITZA SALGAI

- Kalebarria: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Kalebarria: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. ( Guztiz berriztuta )
- Kirikiño: Halla, 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.
- Komentu kalea: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. ( Guztiz berriztuta eta erdi jantzia )
- Laubideta: Halla, sukalde-jantokia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.
- Mikeldi: Halla, egongela, sukaldea, egongela eta komuna.
- Herriko Gudari kalea: Halla, egongela-jangela, sukalde-jantoki, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara.
- Iparraguirre: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Terraza. Trastelekua eta 2 kotxerentzako garajea.
- Monago Torren: Halla, egongela-jangela, 3 logela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- Murueta Torre: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara.
- Plateruen Plaza: Halla, egongela, sukaldea, sukalde jantzia, 4 logela eta 3 komun. Garajea eta trastelekua.
- San Frantzisko: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna. 2 balkoi eta trastelekua.
- San Ignazio Auzunea: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- San Agustinalde: Apartamentu berriak salgai.
- San Fausto: Halla, sukalde-jantokia, 2 logela eta komuna.
- Sasikoa: Halla, egongela, sukalde-jantokia jantzia, 2 logela eta komuna. Ganbara. Jantzia.
- Tronperri kalea: Halla, egongela-jangela, sukalde janztia, 3/4 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Jantzia.
- Txibitena: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia eskegitokiarekin, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Erdi jantzia.
- Untzillaitz: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela eta komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. Erdi jantzia.
- Urkiaga-Torre kalea: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna. Balkoia.

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO
Tel./Faxa:94 681 66 66 inmobisd@euskalnet.net
www.inmoduranguesado.com

### ETXEBIZITZA SALGAI

- Askatasun Etorbidean: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
  - Logela bakarra garajea eta trastelekuarekin 162.000+BEZ
  - 2 logela garajea eta trastelekuarekin 224.000+BEZ
  - 3 logela garajea eta trastelekuarekin 353.000+BEZ
  - 4 logela garajea eta trastelekuarekin, kontsultatu.
- Tabira: Luxuxko etxebizitza berrien promozioa.
- Berriz: Familiabakarreko etxebizitzak eraikitzen. 1.160 m2-ko lursaila.
- Berriz: 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak.
- Elorrio: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.
- Iurreta: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.
- Matiena: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.
- Durango: Ermodo kalean. 90 m2.
- Durangaldea: Baserri eta txalet ezberdinak, Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta…
- Durangaldea: Lokal komertzialak. Aukera zabala
- Durangaldea: Pabilioi ezberdinak salgai eta alokairuan.
- Mañaria: Etxebizitza erdi berria bizitzen sartzeko prest.
- Mañaria: Etxebizitza berriak estreinatzeko.
- Zaldibar: Lur saila salgai. Eraikitzeko aukera.
- Zaldibar: Etxebizitza tasatuak. Zozketa gabe.
- Ezkurdi: 130 m2. 4 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun.
- Askatasun Etorbidea: Duplexa. Izugarria.
- Landako: 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. 2 terraza eta garajea. Ganbara. Bizitzen sartzeko prest.
- Fray Juan de Zumarraga: Duplexa.Ezin-hobea.
- Fray Juan de Zumarraga: 4 logela. Ikuspegi zoragarriak.
- Zabale: 90 m2-ko etxebizitza polita. Garajea eta ganbara. Eguzkitsua.
- San Inazio: Beheko solairua. Pertsona ezinduendako aproposak.
- San Inazio: 90 m2. Garajea eta ganbara. Bizitzen sartzeko prest.
- Ermodo: 90 m2.
- Madalena: 2 edo 3 logelako etxebizitzak.
- Herriko Gudarien kalean: 135 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Oso eguzkitsua. TERRAZA handia. Garajea eta trastelekua.
- Tronperri: Ezin-hobea. 3 logela, egongela, sukalde berria jantzia eta 2 komun. Garaje itxia eta ganbara. Prezio onean.Bizitzen sartzeko prest.
- Murueta Torre:Leku-aldatzea dela eta etxebizitza ezin-hobea saltzeko premia. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- Landako-Txibitena: 2 eta 3 logela.
- Txibitenan: 3 logela, egongela, 3 komun, sukaldea eskegitokiarekin. Balkoia. Garaje aeta trastelekua.
- Tabira: Beheko solairua. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. 70 m2-ko lorategia. Garaje itxia.

ETXETXO G. INMOBILIARIA
Fray Juan de Zumarraga, 4 etxetxo@hotmail.com
Tel.: 94 681 40 40 DURANGO

### ETXEBIZITZAK SALGAI

- Ermodo: 100 m2. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- Montevideo: ( Jesuitas ). Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- Franzisko Ibarra: 100 m2. Eraikuntza berria. Pisu altua. Terraza. Garaje itxia.
- Murueta Torre: Azkeneko solairua terrazarekin. 3 logela. Garajea eta trastelekua.
- Mendizabal: 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea.
- J. Olazaran kalean: 2 logela. Erdi berria.
- Tronperrin: 115 m2. Guztiz kanpora ematen du. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea. Solariuma eta txokoa.
- Durango: Estreinatzeko. 2 logela. Guztiz kanpora ematen du. Eguzkitsua. Garajea eta ganbara.
- Tabira: 2 logela eta 2 komun. Berria.
- Durangon: Eguzkitsua. 168.280 €.
- San Ignazion: 3 logela eta 2 komun. Kanpora ematen du. Eguzkitsua. Terraza. Garajea aukeran.
- Antso Eztegizen: 3 logela, komuna eta egongela. Terraza. Eguzkitsua.
- Ezkurdin: 150 m2. 4 logela, 2 komun eta egongela. Terraza. Aire girotua. Garajea.
- Ezkurdin: 70 m2. 1.go solairua.
- Mikeldin: 4 logela eta 2 komun. Ganbara.
- Sasikoa: 2 logela. Erdi berria. Ganbara.
- Alde zaharra: 3 logela. Aukera.

IURRETA
- Bidebarrietan: 3 logela. Igogailua. Terraza. Bizitzen sartzeko prest.
- Maspe kalean: 3 logela eta egongela. Igogailua. Berogailua eta terraza. Bizitzen sartzeko prest.
- Zubiaurre: 3 logela. Bizitzen sartzeko prest. 210.000 €.

ABADIÑO
- A.Baesclin: 3 logela. 192.000 €.
- Trañaetxosten: 3 logela. 210.000 €.
- San Trokaz: Duplexak. 3 logela eta 2 komun.
- San Trokaz: Logela bakarra. Erdi jantzia.
- Iturritxu: Berria. 2 logela eta 2 komun. 2 Terraza. Ganbara eta trastelekua. Garajea.

ZALDIBAR / BERRIZ
- Zaldibar: Berriztatua. Eguzkitsua. 3 logela, egongela eta sukaldea. 201.188 €. ( 33,5 mill. ).
- Zaldibar: Zalduasolo. 90 m2. 3 logela, 2 komun eta egongela. Terrazak. Garajea aukeran.
- Berriz: 2 logela. Berriztatua. 154.500 €.

### LOKAL KOMERTZIALAK

- Ezkurdi: 145 m2.
- Iurreta: 109 m2.
- Iurreta: 255 m2. 1.380 €.
- Landako: 60 m2. Guztiz egokitua. 650 €.
- Oiz kalean: 60 m2. 125.000 €.
- F.J. de Zumarragan ( Madalena ): 75 m2. Salgai.

ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN, LOKAL KOMERTZIALAK, GARAJEAK,…

Amboto
San Agustinalde, 4 - 1 Ezk.DURANGO
TF.: 94 681 35 62 email: iamboto@euskalnet.net

### ETXEBIZITZA SALGAI

#### DURANGO

- Apartamento berriak eraikitzen.700 € hilero.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- Erdialdea: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak. 172.000 €-tik hasita. Lehen mailako materialak. %100eko finantzaketa.
- Durango: Eraiki berria. 2 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela eta garaje itxia. Lehen mailako materialak.
- San Inazio Auzunea: Berriztatu berria. 3 logela, ( logela printzipala komuna eta jantzigelarekin ), 2 komun, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Aire girotua. Ganbara eta garajea.
- Pedro Pablo Astarloa: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea.
- Intxaurrondo: Apartamentua. Guztiz jantzia. Berria.
- Bolivar: 2 eta 3 logelako etxebizitza berrien eraikuntza. Garaje itxiak.Durangotik 15 minutura. 174.000 €-tik hasita. ORDAINKETA MODUAK NEGOZIATZEN DIRA.
- Barrenkale: AZKENEKO DUPLEXA. Eraiki berriak.
- Herriko Gudarien kalea: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza eta garaje itxia.
- Franzisko Ibarra: Logela bakarreko apartamentua. Garaje eta ganbara. Berriztatuta.
- Askatasun Etorbidea: 125 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara, garajea eta trastelekua. Guztiz kanpora ematen du.
- Astarloa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, eta komuna. Ganbara.
- Juan Antonio Abasolo: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Prezio interesgarria.
- Zubiaurre: 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta garaje itxia. Guztiz berria. Estreinatzeko.

#### IURRETA

- 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Igogailua. Gas naturaleko berogailua. Prezio interesgarria.

#### MATIENA-ABADIÑO

- Txinurrisolo: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara, garajea eta trastelekua. Guztiz kanpora ematen du.

#### JAKA

- Apartamentua. 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje aeta trastelekua. Ia berria. Estreinatzeko.

#### TXALETAK SALGAI

#### ABADIÑO

- Mendiola. Bifamiliarra.Eraiki berria. Estreinatzeko.Informazio pertsonalizatua.
- Bifamiliarra. Leku onean kokatua. Loratategiarekin.

# DENPORAPASAK>

## HITZ GEZIDUNAK >



Ezjakin
Azpikoa
Saudi Arabiako hirib
Praiako
Fruitu mota
Asiako estatua
Pl., egunero-ko jakia
Kafea eda-teko tokiak
Abere baten ume
Gorakoa
Zaroko
Nitrogenoa
Izerdi zapi
* Irudiko hegaztia
Olaibarko auzoa
Barkamena
Hots baten onomatop.
Suari dariona
Estatu Batuak
Arbasoa
Ez emea
Txinpart, pindar
Kolore mota
Musika nota
Kriptona
Tente
Toka, nazazu
Dago
Adarren multzo
Beldurtia

## SUDOKU >

**1**

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 6 | | | | 4 | 7 | 8 | |
| 3 | | | 9 | | | 1 | 5 | |
| | | | 2 | 8 | 3 | | 9 | |
| 4 | | | 7 | | | | | 6 |
| 2 | | 8 | | | | 9 | 3 | |
| | | | | | 1 | | | 8 |
| | | 5 | 1 | 3 | 7 | | | |
| | 9 | | | 5 | 2 | | | 1 |
| 7 | 2 | 1 | | 6 | 9 | | 4 | |

**2**

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 9 | 6 | | | 4 | | |
| 1 | | 7 | | 9 | | | | |
| | 8 | | | | 7 | | 3 | |
| | 5 | | | 1 | | | | |
| | | | | 2 | 3 | 8 | 9 | |
| | | | | | | | | |
| 6 | | 8 | | | | | | 5 |
| 2 | 9 | | | | 5 | | | 3 |
| | | | 8 | | 4 | 6 | | 9 |

## HOROSKOPOA >

### Aries
martxoak 21 - apirilak 20

Zeure burua publizitatu beharko zeunke, marka edo produktu onenen moduan. Ipini elegante eta emon buelta bat kalean!

### Taurus
apirilak 21 - maiatzak 20

Harrapatu zaitugu! Zer uste zenduen, ANBOTOkoak leloak ginela? Zulotxo batetik dena ikusten dogu...

### Gemini
maiatzak 21 - ekainak 20

Aste honetan egoera barriak biziko dozuz. Pentsatu ondo, ezer egin baino lehenago.

### Cancer
ekainak 21 - uztailak 20

Eguneroko oztopo eta arazoen aurrean, ingurukoekin elkartzea dozu onena. Jente barria ezagutzea be ez legoke txarto.

### Leo
uztailak 21 - abuztuak 23

Zaindu egizu hobeto zeure gorputza; ipini egizu arreta handiagoa osasunean eta itxuran. Ez pentsatu zeurekoia zarenik.

### Virgo
abuztuak 24 - irailak 23

Kasu lar egiten deutsazu inguruko jenteari, batez be, lagunei. Kasu egitekotan, egiozu ANBOTOko horoskopoari!

### Libra
irailak 24 - urriak 23

Zer dozu esateko? Zer ezkutatzen dozu hor barruan? Arazoa geroago eta handiagoa egingo jatzu, behingoz kontatzen ez badozu.

### Scorpius
urriak 24 - azaroak 23

Min egin deutsue, eta ez zenduen inondik inora itxaroten. Bizimoduan, jasotako kolpeekin ikasten ei da ondoen.

### Sagitarius
azaroak 24 - abenduak 23

Lehenago hotzagaitik kexatzen zinen, eta oraingo egunetan beroagaitik. Zureak badauka erremediorik? Egon gerizpean.

### Capricornus
abenduak 24 - urtarrilak 20

Pelikuletako maitasun istorioak ederrak izan ohi dira, baina pelikulak baino ez dira.

### Aquarius
urtarrilak 21 - otsailak 18

Txin-txin, txin-txin... diruaren hotsa! Zuk, ez dirurik ez txin-txinik. Izan egizu pazientzia handiagoa krisi sasoi honetan.

### Piscis
otsailak 19 - martxoak 20

Gaur honegaitik eta bihar haregaitik. Kontua da, beti eztabaida bizian zabilziela. Baretu zaiteze apur batean!

## ZOZKETA >

Badaukagu ANBOTO astekariak Eusko Labelekin batera zotz egiten dauen otzararen saritua:



**Nekane Agirrebeitia Pinilla (Abadiño)**

**ZORIONAK ETA ON EGIN!**

## ZORION AGURRAK >

agurrak: zorionak@anboto.org-ra
Santa Ana 6, 48200 durango



Zorionak, **Manex**! Ekainaren 29an urte bat egin eban mutiko politenari, mosu handi bat, Astolako familia-ren partez. Eskerrik asko merienda gozoagaitik.



Astelehenean **Maren**ek zazpi urte egin zituen, eta mosu handi-handi bat bidali gura deutsagu, etxekoen eta lagunen partez.



Ekainaren 29an **Jon Ortuzar**rek 6 urte egin zituen, eta **Elene Ortuzar**rek uztailaren 2an 3 urte egin zituen. Zorionak etxeko trasto biei. Zaldibarko neba-arreba bi honeei mosu handi-handi eta besarkada bana, familia osoaren izenean.

EUSKADIN KALITATEAREN IKURRA K HIZKIA DA




Eusko Labelaren K-rekin
Gure lurreko elikagai aukeratuak, mimo handiz ekoiztuak, hasieratik bukaeraraino kontrolatuak eta benetakotasunaren berme guztiekin.

EUSKO LABEL
Goi-mailako elikagaiak
Alimentos de calidad superior
Ona den seinale

Euskal Okela
Euskal Esne Bildotsa
Gernikako Piperra
Hegaluzea eta Hegalaburra
Euskal Baserriko Arrautza
Euskal Baserriko Oilaskoa
Euskal Esnea
Ibarrako Piparrak
Eztia
Miel
Euskal Tomatea
Arabako Patata
Euskal Babarrunak

anboto komunikabideak
Egoitza: Santa Ana plaza, 6 48200-Durango (Bizkaia) Tel.: 94 623 2523 Anboto Irratia: 94 623 80 40 Harpidetzak: 94 681 65 58
Publizitatea: 94 621 79 02 publi@anboto.org Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 9.200 ale
337 zk. 2009ko uztailaren 3a

AKUILUAN

■ Aitziber Basauri ■ Argazkia: Iban Gorriti

# “Adinean aurrera eginda gurago doguz Harley Davidsonak”

## Zaletasun garestia be badela aitortu dau mutikotatik motorzalea den Bilbao Chapter-eko kideak

**Eguraldiak lagundu ez arren, Harleya hartzeko aukerarik ez dau galtzen 48 urte egingo dituen durangarrak. Autoak errespetatzen ikasi ei dau; “ez daukagu 25 urteko gazteen odolik”.**

***Noiztik zara motorzale?***
Urtebete daroat Harleyagaz, baina 12 urtegaz hasi nintzen, 49cc-ko Derbyagaz. Japoniarrak be izan ditut, baina, adinean aurrera eginda, gurago doguz Harleyak.

***Adinagaz lotutakoa da Harleya?***
Harleya daukagunok edadekoak gara; 70 urte eta gehiagokoak be badira. Gazteagotan japoniarrekin (Yamaha, Honda…) topera gindoazen, abiadura handiagoan. Lasaiago, paisaiari begira goaz orain, 110-130 kilometro orduan. Kontzentrazinoetan berrogeitaka urtekoak gara ia denak. Gaztetxoren bat inoiz, motoa aitari kenduta imajinatu dot… baina gatxa da.

***Estetika eta filosofia bategaz lotu leiteke… Sekta lakoa ei zarie?***
Ezta pentsau be! Denetarikoak gabiltz Harleyaren bueltan: ingenari, notario, aparejadore, halan bizi den ohiko erdi-zoroa… Baina, jente jatorra! Filmetako estetika jarraitzen dogu, baina ez beti… Kontzentrazinora heldu eta arropa erosogoa jartzen dogu askotan. Pentsatu: Murtziako beroagaz!

***Kontzentrazinoetarako jantzen dozue orduan larrua…***
Bai, Bilbao Chapter-eko txalekoa jarri ohi dot. Horren bitartez, hainbat ekintza eratzen dogu. Hainbat lekutan dagoz, eta noizbehinka kontzentrazinoetan, jai giroan, kontuak trukatzeko batzen gara.

***Zaletasun garestia da zuena.***
Motorrak berak dirua balio dau, eta edozein tontokeri jarriz gero… Eta nik holakoak oso gustuko ditudanez… Atzeko gurpileko azken aldaketak 1.600 euro kostatu jataz. Motoan 12.000-13.000 euro gastatu ditut, eta ez da askorik igartzen! Irailean margoztu egingo dot neure gustura. 1.000 bat euro behar dira, eta graffitiren bat gura badozu 2.000, baina…

***Neurrikoa!***
Bakotxak bere izaera dauka, eta batean eta bestean begiratuta, azkenean neure gustuko motoa egingo dot.

***Luxua be bada…***
Egia esanda, bai. Baina bizio batzuk kendu dodaz: gitxiago nabil tabernetan, karta barik menua hartzen dot… (barrez). Onena kontsumoa: 300 kilometro egin neikez 15 eurogaz.

***Inguruan asko zarie zaletuak?***
Gitxi zegozela uste neban, baina 15 egongo ziren nik hartzean. Baina, ez dakit zergaitik, ezkutatuta eduki ditue eta halako batean denak atera ditue. Batzuei motoa ateratzeak lotsa edo zera hori emoten deutse… Atera daiezela, ikusi daitezela!

***Xarma berezia dauka Harleyak?***
‘Easy Rider’ edo ‘The Wild One’ lako filmek be lagun du dabe horretan. Orduan egin ziren ezagun, apur bat “burdin zatia” be izan arren; pisutsuak. Koadrilan joaten gara Harleyagaz, beste plan batean. Gainera, esaterako, japoniarrak geratzekoak dira, deserosoagoak; 200 kilometroan apurtuta zagoz. Egunean 1.000 kilometro egin zeinkez Harleyagaz, gasolina botatzeko bakarrik geratuta. Egia da gaur egun ez dagoen halako lagunartea sortu leikela euren artean be, baina…



***Begira be geratuko jatzuez?***
Bai, egia esan, egun osoa be egiten dogu garbitzen. Autoa ez dakit noiztik ez dodan garbitu… Baina, uste dot zaindu egin behar dela; 10-12 urte igarota be bardin dago-eta. Harleyaren estetika apenas aldatu da.

***Gizonen mundua da?***
Ez, geroago eta andra gehiago dago, inguruan gitxi ikusi arren. Moto txikiagoak ditue, arinagoak.

***Motoetan norbera da txasia.***
Bai, eta batez be urietan errespetua emoten dau, autoek ez dabe-eta motoek behar daben itzitako distantzia errespetatzen.

### Luisma Beobide

- **Benetan atsegin dau Harleyaren soinua**
- **‘Euskal Harley’-ren antolaketan jardun dau**

LAUHORTZA



Iñaki Sánchez
**Irakaslea**

## Irakurlearen bila (I)

Ez, ez dakit nor zaren; ezta norekin, noiz, nola edo non zauden ere. Agian, zapatua da eta etxean, goxo-goxo, gosaltzen hasia zara; laranja-zukua, kafea…Anboto daukazu mahaian, katiluaren ondoan, hain zuzen. Ez dakit. Baliteke zeu izatea, zapatuan erositako gustuko egunkariarekin batera, etxean irakurtzeko duzun txokoan, Anbotori azaleko irakurketa egitea erabaki duena. Beharbada, tren geltokian zaude, eskumako aldean inor ez dago; ezta ezkerrekoan ere . Ezer hoberik ez, eta beste norbaitek banku batean utzitako Anbotori erreparatu diozu.Ea zer dioen!

Ala, zeu al zara barikuero aldameneko auzokoari postontzitik Anboto lapurtzen diona? (Gero,etxean patxadaz gozatzeko, jakina!) Ez dakit. Apika, tabernan, lagun minaren zain, goizeko lehen bermuta ahoratzeko prest, eta eskuetan denborapasa edo Anboto daukana zeu izan zintezke. Eta ausartago, leitzen ari zaren honek urtebete balu? Bai, izan liteke. Trastelekuan zeraren bila ari zinela, egunkari zahar eta horiztatuen artean aurkitu baituzu. Datari begiratu eta lerro hauek argitaratu zirenetik urtebete pasatu da. Ez dakit….

Ene bada! Badakit nor zaren, baita zertan ari zaren ere! Lotsabako halakoa. Hamaika ikusteko jaio omen ginen eta oraingo honekin hamabigarrena! Elkarrekin egon eta horretarako aukera daukadanean… hamaika eta bi entzun beharko dituzu. Zertan zeu horretan, Anboto irakurri bitartean! Ziur aski, “Irakurlearen bila(2)” izenekoan den-dena kontatuko dut. Baliteke... (kar,kar). Oporretan, ondo izan, Kroasan!

